

2019-02-15 OSTIRALA / 673. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



**Euskaraldia 2020ko**  
udazkenean eginen  
da berriro.  
**Aurrekoaren datuak**  
aletu ditugu / 2-4

**Sakanako 14 udalek**  
tren sozialaren  
aldeko Tafallako  
kontzentrazioa  
joateko deitu dute / 9

**Altsasuko Udalak**  
zortzi langabetu  
kontratatzeko  
prozedura hasi  
berri du / 7

**Euskal Herriko**  
**Klubaren Arteko**  
**txapelketan**  
**Irurtzunek lurreta**  
**izanen du aurkari** / 19

**Sakanako Aizkora**  
**Eskola martxoan**  
**hasiko da; 10 urtetik**  
**gorakoek eman**  
**dezakete izena** / 20

**Altsasukoak Aske**  
**II. Literatura**  
**Lehiaketaren sari**  
**banaketa gaur,**  
**18:00etan, lortian** / 21

**El Muerto Vivo-ren**  
**kontzertua bihar,**  
**larunbata, Etxarri**  
**Aranazko kultur**  
**etxean, 21:00etan** / 21

**TORTURA**  
Otsailak 13  
Torturaren  
aurkako  
eguna

**SAKANAN**  
**149+**  
**#AZTNUGAL**

**EKITALDIA** iluntasunetik argitasunera  
Otsailak 16, larunbata • 13:00  
Iturmendiko plaza #aldehemendik

sortu



## Hemerogu

Guaixeren hemeroteka ibiltari parte-hartzailearen lehen geldialdia, Urdiain / 4



## Ihote-dantza

Ziordiak herri-inauteria berreskuratuko du bihar / 13





Euskaraldiaren aurkezpena Lizarragan. ARTXIBOA

# Euskaraldia, batetik besterako bidean jada

Euskararen erabilera handitzea helburu duen ariketa sozialaren bigarren edizioa 2020ko udazkenean izanen da. Herritarrez aparte mota guztietako erakundeak parte hartzeko aukera izanen dute. Bitartean, Gaindegiak aurrekoaren datuak aztertu ditu

## Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Antolatzaileek bukatu berrikan jakinarazi zuten "jarraipena izango duen ariketa" izanen zela eta berriki argitu dute Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020ko udazkenean izanen dela. Joan den urtean bezala herritarren arteko hizkuntza ohituretan eragin nahiko du Euskaraldiak ahobizi eta belarriprest rolen bitartez. Euskararen erabilera handitzea baita helburu. Baina, horrekin batera, era guztietako entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera hazteko neurriak bultzatu nahi ditu. Horregatik, bigarren edizioan Euskaraldia ere erakunde publiko, enpresa, komertzio, el-

karte eta gizarte eragileengana joko du, konpromiso zehatzak hartuko eta gauzatuko dituzten entitateengana.

Bigarren Euskaraldiaren antolakuntzan ari direnek argi dute "hizkuntza ohiturak eta inertiak aldatzea epe luzeko lana dela. Berrito ere ahobizi edo belarriprest modura jokatzeo gonbidapen bateratua egingen dugu, euskararendako harreman eta eremu berriak irabazten jarraitzeko". Beraz, urte eta erdi barru, atzera ere, paparrean, poltsa edo zapietan txapak ikusiko ditugu. Euskaraldiaren sustatzaileek herrietako batzordeak aurten bertan aktibatu nahi dituzte. Bestalde,

aurreko edizioako parte-hartzaileek martxoan jasoko dute Soziolinguistika Klusterrak egingako ikerketaren azken galdeketa. Euskaraldiaren eraginaren inguruko emaitzak udarako izanen dira.

## Aurrenekoaren emaitza

Azaroaren 23a eta abenduaren 3a artean 225.154 euskal herritarrek, 22.334 nafarrek eta 2.609 sakandarrek parte hartu zuten Euskaraldian. Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, Euskaraldiaren antolatzaileen enkarguz Euskaraldiko parte-hartzaileen datuen azterketa egin du.


## Parte-hartzaile kopurua

| Eremua        | Guztira | Ahobizi | Belarriprest |
|---------------|---------|---------|--------------|
| Euskal Herria | 225.154 | 163.927 | 61.227       |
| Nafarroa      | 22.334  | 16.007  | 6.327        |
| Sakana        | 2.609   | 2.078   | 531          |

Zenbakiei erreparatuta Gipuzkoakoak (96.522) eta Bizkaikoak (80.036) ziren gehienak. Nafarroan hirugarren lurraldea zen (22.334). Sakanan 2.609 parte-hartzaile izan ziren, Euskaraldiko parte-hartzaile nafarren % 11,68. Eus-

karaldian hamar sakandarretik batek parte hartu zuten (%12,92). Gaindegiak Euskal Herria 52 eskualdeetan banatu du eta kopuruari dagokionez, parte-hartze handiena duten eskualdeen artean Sakana 18.a da.

## Rolen banaketa



Euskararen erabilera sustatzeko ariketako rolen banaketari dagokionez, Euskal Herrian ia lau parte-hartzaileetatik hiru ahobizi izan zen. Nafarroan kopurua pixka bat txikiagoa izan zen, hamarretik zazpi. Eta Sakanan, azkenik, ahobiziek parte-hartzaileen % 79,65 izan ziren (2.078), Euskal Herriko (%72,8)

eta Nafarroako (% 71,7) kopuruaren gainetik. Ahobizi proportzio handien izan zuten eskualdeen artean 12. izan zen ibarra. Belarriprest kopurua % 20,35 izan zen (531 belarriprest eta 38. postua). Hau da, Sakana bost parte-hartzailetako lau ahobizi izan ziren eta bakarria belarriprest.



Iturria: Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

[www.gaindegia.eus](http://www.gaindegia.eus)



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
[www.ventanasegoki.com](http://www.ventanasegoki.com)

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

[egoki@ventanasegoki.com](mailto:egoki@ventanasegoki.com)



**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Herriz herriko datuak

| Herria          | Parte-hartzaileak | Ahobiziak    | %            | Belarriprestak | %            | Biztanleria  | Parte-hartze % |
|-----------------|-------------------|--------------|--------------|----------------|--------------|--------------|----------------|
| Irurtzun*       | 325               | 238          | 73,2         | 87             | 26,8         | 3.158        | 10,29          |
| Uharte Arakil*  | 93                | 77           | 82,8         | 16             | 17,2         | 981          | 9,48           |
| Arruazu         | 50                | 39           | 78,0         | 11             | 22,0         | 106          | 47,17          |
| Lakuntza        | 285               | 220          | 77,2         | 65             | 22,8         | 1.272        | 22,41          |
| Arbizu*         | 310               | 279          | 90,0         | 31             | 10,0         | 1.508        | 20,56          |
| Etxarri Aranatz | 428               | 383          | 89,5         | 45             | 10,5         | 2.503        | 17,10          |
| Bakaiku*        | 103               | 78           | 75,7         | 25             | 24,3         | 727          | 14,17          |
| Urdiain         | 130               | 112          | 86,2         | 18             | 13,8         | 675          | 19,26          |
| Altsasu         | 696               | 514          | 73,9         | 182            | 26,1         | 7.407        | 9,40           |
| Olatzagutia*    | 189               | 138          | 73,0         | 51             | 27,0         | 1.858        | 10,17          |
| <b>Guztira</b>  | <b>2.609</b>      | <b>2.078</b> | <b>79,65</b> | <b>531</b>     | <b>20,35</b> | <b>20195</b> | <b>12,92</b>   |


OHARRA: ARAKIL, IRAÑETA, ERGOIENA, ITURMENDI ETA ZIORDIKOAK BESTE HERRIETAN DAUDE SARTUTA.

Euskal Herriko herrialde eta eskualde batetik bestera aldea dagoen moduan, Sakanako herriei erreparatuta ere aldeak ikusten dira. Euskararen ezagutza handien duten herrietan Euskaraldiak oihartzun handiagoa izan zuen. Eta alde handiz, Arruazun, arruazuarren ia erdiak parte hartu baitzuen. Arruazuren pareko euskara ezagutza, edo handiagoa duten herrietan (Arbizun, Etxarri Aranatz eta Urdiainen) parte-hartzea % 17 eta % 20 artekoa izan zen. Hizkuntzaren ezagutza txikiagoa duen Lakuntzak hiru

herri horiek baino parte-hartze handiagoa izan zuen. Euskararen ezagutza antzeko kopuruak izan dituzten Irurtzun, Uharte Arakil, Altsasu eta Olatzagutian pareko kopuruak zituzten. Euskaraldiko parte-hartze datuek lurralde desoreka erakusten dute. Ibarreko Euskaraldiko parte-hartzaile portzentaia handienak Sakana erdialdeko eta Burunda ekialdeko herrietan pilatzen dira. Sakanako % 12,92ko batz bestekoaren azpitik lau herri daude (Irurtzun, Uharte Arakil, Altsasu eta Olatzagutia), aldea txikia bada

ere. Hala ere, biztanleriaren pisua agerian gelditu da, izan ere, ibarreko muturretako herriek eta erdialdekoek parte-hartzaile kopuru bera eman zioten Euskaraldiari: 1.303 eta 1.306. Datu horrek erakusten du euskararen ezagutza handiagoa den herrietan Euskaraldiak ez dituela euskaldun asko erakarri, bai, ordea, erdaldunagoak diren herrietan. Beste datu aipagarri bat da mila pertsonatik beherako herrietan parte hartzea Sakanakoaren batz bestekoa baino handiagoa izan zela, Uharte Arakilen salbu.

## Adina




Euskaraldiko parte-hartzaileen adinari erreparatuta, datuak aztertuta, Gaindegia adierazi dute Euskaraldian “30 eta 44 urte bitarteko belaunaldiaren ekarpenak berebiziko garrantzia” izan zuela, “ugalkortasun handiko belaunaldia izanda, fenomenoak arreta eta analisi sakonagoa merezi du”. Nafarroa eta Sakana Euskal Herriko batz bestekoaren gainetik kokatu dira adin tarte horretan.

Parte-hartze portzentaje handiena zuen hurrengo adin tarteari, gazteenenari, 14,3 puntuko aldea atera zion. Gazteen artean askoz ere euskara ezagutza maila handiagoa badago ere, ez zuten Euskaraldian parte hartzeko pausoa eman. Are gehiago, haietako askoren gurasoak izan daitezkeen 45-60 arteko adin tarteko parte-hartze maila soilik 0,6 puntu txikiagoa izan zen. Nahiz eta adin tarte-horre-

tan hizkuntzaren ezagutza maila gazteena baino txikiagoa den, Euskaraldian parte hartzera gehiago animatu ziren. Sakanako 16 eta 44 urte artekoen parte hartze datuak batuta, hamarretik sei ziren (% 63,1). Adin tarte 16tik 60 urtera luzatzen badugu, hamarretik zortzira pasa ziren (%86,9). Azken datu horrek agerian uzten du adinduen artean Euskaraldiak jarraipen eskasagoa izan zuela. Gaindegia eskualdeko antolatutako zerrendari erreparatuta, 16 eta 29 urte artekoen presentzia handieneko eskualdeen rankingean Sakana 23. postuan zegoen. Ibarra 20. zen 30 eta 44 urtekoen presentzia handieneko eskualdeen artean. Hurrengo adin tartean, 45-59 urte, 35. eskualdea zen. Bestetik, 60 eta 74 urtekoen adin tartean 15. eskualdea ibarra. Eta, azkenik, 75 urtetik gorako presentzia handieneko eskualdeen zerrendan Sakana 20. izan zen.


## Belaunaldikako parte-hartzea



Parametro horri ere erreparatutako Gaindegia. Euskararen erabilera handitzeko ariketa kolektiboan, orokorrean, 16 eta 44 urte arteko biztanleriarengan izandako hedadura azpimarratu dute Gaindegia. Adin tarte horretan, hedadura handieneko eskualdeen

arteak Sakana 14. izan zen (% 23,9). 45 eta 59 urtekoen arteko hedadura handieneko eskualdeen zerrendan Sakanak 15. postua lortu zuen (% 13,3) eta, azkenik, 60 urtetik gorako artean hedadura handieneko eskualdeetan Sakana 12. izan zen (% 6,4).

## Generoa




Generoari erreparatuta, Euskaraldian “emakumezkoen parte-hartzeak berebiziko garrantzia izan du, batik bat 60 urtetik beherako belaunaldietan. Emakumezkoen nagusitasuna nahikoa homogeneoa izan da lurralde osoan”. Euskaraldiko hiru parte hartzaileetatik bi emakumezkoak izan ziren eta bakarrik gizonezkoa. Kaleko neurketek ere emakumeen hizkuntza era-

bilera pitte bat handiagoa dela erakutsi dute. Sakanak Euskal Herriaren pareko datuak ditu. Gizonezkoek emakumezkoen pareko parte hartzea balute 2.020ko Euskaraldian 3.220 parte-hartzaile lirateke, ibarreko populazioaren %15,94. Gaindegia eskualdeen arabera zerrendari erreparatuta, Sakanako emakumezkoen parte hartzea 17. zen eta gizonezkoena 37.






## Euskaraldiaren hedadura biztanlerian



Gaindegia jakinarazi dutenez, 16 urtetik gorako euskal herriarren % 8,5ak parte-hartu zuen Euskaraldian. Baina lurraldeka eta eskualdeka "ekimenak hedadura oso heterogeneoa izan du". Gipuzkoa nabarmendu zen Euskal Herriko parte-hartze kopurua ia bikoiztuz (%

15,9). Nafarroan, berriz, Euskaraldiko parte-hartze maila Euskal Herrikoaren erdia izan zen (% 4,2). Sakandarren parte-hartzeari dagokionez, % 15,4koa izan zen eta kopuru horrek parte-hartze handieneko eskualdeen zerrendan 12. postuan utzi zuen ibarra.

## Generoen arabera hedadura




Euskaraldiak generoen arabera izandako hedaturari dagokionez, "biztanleriarekiko proportzioan ekimenaren hedadura-maila handiagoa izan zen emakumezkoen artean. Hedadura-mailaren gaineko genero diferentzia handienak, hain zuzen ere, ekimenak hedadura handieneko eskualdeetan daude". Emakumezkoen artean ekimenaren hedadura-

maila % 10,2koa izan zen eta gizonezkoen artean, % 6,5. Ezbinariotzat 1.927 pertsonen jo zuten euren burua.

Sakanari dagokionez, generoari erreparatuta biztanleriaren gaineko hedadura handieneko eskualdeen artean, bai emakumezkoetan (% 19,5) bai gizonezkoetan (% 11,3) ibarra 13. postuan dago.


## Euskaraldiaren hedadura euskal hiztunengan



Gaindegia jakinarazi duenez, euskal hiztun guztien % 14,7k parte hartu zuen Euskaraldian. Ariketa kolektiboko parte-hartze maila tokiko euskal hiztunekin alderatuz, Euskaraldiak hedadura heterogeneoa izan zuen eskualdeetan. Euskal hiztunen parte-hartze maila handiena Gipuzkoan izan zen (% 19). Nafarroak Euskal Herriaren datu bera izan zuen, % 14,7.

Eta Sakanari dagokionez, ibarreko euskaldunen % 17,8k jarri aktiboa izan zuen Euskaraldian, parte-hartze handieneko eskualdeen zerrendan Sakana 17. postuan kokatuz. Sakanako ahobiziek ibarreko euskal hiztunengan izandako hedadura (% 14,2) 18. postuan utzi zuen eskualdea. Eta belarripresten hedadura (% 3,6) Gaindegia zerrendan 39. postuan kokatu zuen Sakana.

## Euskaraldiaren erdal hiztunen gaineko hedadura



Euskaraldiak erdal hiztunen komunitatean eragina izan zuen eta hori neurtzeko Gaindegia ariketako parte-hartzaile kopurua erdal hiztunekin alderatu du. Eragin handiena Gipuzkoan izan zen, % 52. Euskal

Herrikoa % 15,1 eta Nafarroak % 4,8koa. Sakanako erdal hiztunen % 49,6ri eragin zien Euskaraldiak. Erdal hiztunen gaineko hedadura handieneko eskualdeen artean Sakana 11. postuan zen.



Erakusketa Urdiaingo liburutegian.

## Erakusketa ibiltari eta parte-hartzailea

Urdiaingo liburutegian Guaixeren ale zaharrak ttutukatu eta argazkiak egiteko aukera dago

URDIAIN / SAKANA

Urdiaingo liburutegia da Guaixeren hemeroteka erakusten duen erakusketaren aurreneko geldialdia. Hilaren 22ra arte handik pasatzen direnak Guaixe hilabetekariaren eta Oixe astekariaren aleak ttutukatzeko aukera izanen dute. Argitalpenen orriak pasaz erakusketako bisitariak jabetuko dira batzen gaituena euskara, Sakana eta Guaixe bera direla.

Aletan bere burua edo etxekoren batena topatzen duenari Guaixe fundaziotik zera proposatzen diogu: harekin argazkia egitea eta sare sozialetan argazkia #batzengaituena edota #Guaixe25 traolak erabiliz partekatzea. Photocalla egiteko markoa ere badago standean eta nahi duenak harekin argazkia egiteko eta sare sozialetan partekatzeko aukera du. Argazki xalxeroaren egileari pertsonalizatutako Guaixe astekariaren azal bat oparitu dio fundazioak. Bakarren batek arrazoi bereziren bategatik erakusketako aleren bat berarendako nahiko balu, admin@guaixe.eus e-posta helbidera eskaera idaztea besterik ez du. Alea oparitutako dio fundazioak. Trukean alearekin agertzen den bere argazkia partekatzeko eskertuko genioke.

# EUSKARALDIA





ASTEKOA

RAF ATXURI

## Bertso saio batez Madrilen

Ahaide batek gaztigatua gertakizunaren berri izan nuen. Hi, halako egunean, halako orduan Maialen Lujanbiok Radio 3-en bertso saioa eskainiko dik. Begiak arranpalo eta belarriak txurrutel jaso nuen berria: "latza duk hori" neure baitan.

"El septimo vicio" deritzan programan aritu zen bertsolari hernaniarra. Javier Tolentino esatariak gidatzen du saioa eta zinemagintza du xede. Asier Altunaren Bertsolari filma kari, M. Lujanbio gonbidatu zuten bertso batzuk bat-batean bota eta autoitzuli zitzan. Tolentinoren harrera Maialeni: "Ongi etorri Euskadi maite duen hiribildu honetara, badakizu bai, Maialen, Madrilek bihotz duela Euskal Herrian?" Maialenek: "A, bai? Ez nekien." Tolentinok: "Euskaldunoi kostatu egiten zaizue, sexuarekin bezala da".

Maialenek: "Tira, maitasun-erakustaldi asko ere ez du beti egiten". Tolentinok: "Bai, Madrilek bai. Ez gara politikaz ari...".

Sarreratxo honen ondotik mikro bertso-saioa etorri zen. Tolentino gaijartzaile jardun zen, lehen gaia: "Espainia". Maialenek: "Errezeloa piztutzen zaigu/ Espainia hitzaren truke/ zenbat borroka ta tirabira/ jo ta ke zenbat jardute/ behetik gora zuei begira/ daramagu hainbat urte/ parez pare laguna balitz/ gehiago maiteko nuke".

## "ONGI ETORRI EUSKADI MAITE DUEN HIRIBILDU HONETARA, BADA KIZU BAI, MAIALEN"

Aurreko gaia bezain bitxia suertatu zen proposatutako azkena: "Sexurik gabeko maitasuna". Maialenek: "Nahikoa badaukagu/ ja topikoekin/ gai euskalduna omen/ ta galdetzen ekin/ labor erantzungo dut/ nahi baduzu jakin/ zortzi abizenenari/ kasurik ez egin".

Topikoak topiko eta itzulpenak itzulpen, ez dakit Radio 3-en espainiar entzule kulturetak mikrosaio honen ondotik euskal bertsogintzaren tankerarik hartu ote zuen pixka batean ere. Nolanahi ere saio osoa entzungai dago, ea zer deritzozuen :

<http://www.rtve.es/alcanta/audios/el-septimo-vicio/septimo-vicio-memorable-maialen-lujanbio-29-01-19/4957848/>.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Garaia baino lehen itzaltzen diren mugikorrak

#### IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Kontsumitzaile askok telefono berria erosi behar izaten dute duela urte pare bat soilik erositako produktua konpondu edo eguneratu ezin dutenean edo osagarririk aurkitzen ez dutenean. Hala da batez ere produktu teknologikoekin.

Zenbaitetan, kontsumitzailea zuen kargagailua galdu ondoren duela apenas bi urte mugikorra erosi zuen dendara joaten da berri bat eskatzera. Dendan esaten diote modelo horretarako jada ez dagoela izakinik. Antzeko kasuak eman dira tabletentzako

euskarriekin edo pantaila-babesleekin.

Zenbait mugikor edo gailu elektronikoen market aplikazio edo programa ohizkoenak atzitzeko sistema eragile berriak merkaturatzen dituzte. Horren ondorioz duela bi urte soilik terminal bat erosi zuten kontsumitzaileek modelo berri bat erosi behar izan dute.

Arazo asko dago ere mugikorretan, tabletetan edo beste gailuetan konponketak egiteko. Zenbaitetan, konponketa hain da garestia zein hobe den mugikor berri bat erostea.

Horiek dira zaharkitzapen programatuak dakarren ondorioen zenbait adibide. Horri aurre egiteko proposamen batzuk:

-Elaborazioan ez direla nahita neurriak ezartzen produktuen bizitza erabilgarria laburtzeko edo konponketa galarazteko kontrolatzea.

-Fabrikatzaileak etiketan produktuen iraupena, konponketa posibilitateak eta salbuespenak jakinaraztea.

-Produktuen berme-epea zabaltzea bizitza erabilgarri osoan zehar eta gailua behar ez bezala erabili dela frogatu behar duena enpresa izatea.

-Zerbitzu tekniko ofizialek konponketaren benetako kostua kobratzen dutela egiaztatzea eta ez dutela tailer independenteen lana eragozten.

## GUTUNA

### Herri internazionalista... izan brigadista!

#### JOSU MIREN RUBIO MENDILUZE

Pasa den urtean Euskal Herri aske bat internazionalismotik eraikitzea ezinbesteko zela azpimarratu bagenuen, aurren, hori egiteko tresna brigadak direla aldarrikatu nahi dugu. Izan ere, Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialean internazionalismoak duen garrantziaz jabe, borroka honetan gure ekarpena egiteko bitarteko baliagarriak ditugu brigadak. Etorkizuneko Euskal Herri internazionalista gaurtik eraikitzen hasiak gaudelako, gainontzeko herri langileen borroka ezagutu eta geure borroka irakaspen horietatik elikatzea ezinbestekoa dugula uste dugu.

Jakitun gara gainerako herriei egin diezaiekegun ekarpen iraultzailerik handiena gure herriaren askatasuna eskuratzea dugula. Eta zerumugan norabide hori dugula garatzen dugu gure praktika internazionalista: joan-etorrikoa, herritik herrira, berdintasunean oinarritua. Baina berrikuntza garrantzitsu batekin gatz: udaberriko brigadak! Hain zuzen ere, Paris eta Herrialde Katalanetara egingo ditugu udaberriko brigada hauek, apirila amaieran. Estatu frantziarrearantz garatzen ari diren borroka bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu Parisko brigadan eta Herrialde Katalanetan aldiz, bizitzen ari diren ukazio egoera eta "prozes" deituriko bide orriaren mugak ere lehen eskutik ezagutzeko aukera izango da.

Aurren ere brigadak hiru eremu geografikoetan kokatuko

ditugu: Latinoamerika, Ekialde Hurbila eta Europa.

• Latinoamerikak inperialismoaren eraso bortitza bizi du egun, eta herri langileen erresistentzia borroka, zein prozesu iraultzaileen nolaketakunak ezagutuko ditugu ondorengo herrietan: Argentina-Uruguai, Brasil, Venezuela, Mexiko eta Bolivian.

• Ekialde Hurbileko brigadei dagokionean Palestinan zein Libanon inperialismoaren aurkako herri erresistentziak, askapen borroka, okupazio militarra edota errefuxiatuen egoera ezagutuko ditugu.

• Azkenik, Greziara eta Sardinia brigadak, ezkerreko mugimenduen errealitate eta borroka zein nazio zapalduen askapen prozesuak ezagutzeko. Paris eta Herrialde Katalanetako brigadak udaberrian izango dira.

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**Zuzentzailea:**  
Felix Alzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



# Eraikuntza gehigarria eraikitzen

Publizitatea kontratazeko azken eguna martxoak 21

[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

[publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)

948 564 275



## Bakaikuko Plan Estrategikoaren jarraipena hasi da

Plan Estrategikoa eginda, hura gauzatzeko jarraipen batzordea sortu dute. Festak bitartean auzolana herrian nola landu aztertzen hasi ziren ostiralean. 17 bakaikuar elkartu ziren eta erabaki zuten hiru gairen inguruko lantalde bana sortzea. Batek auzolanari buruzko gakoak identifikatuko ditu, zertaz ariko diren argi izateko. Beste lantalde batek auzolanean zein lan egin daitezkeen identifikatuko ditu. Azkenak, berriz, beste herrietako ordenantzak aztertuko ditu eta irakaspenak ateratzeko.

Lantaldeak gaur, 19:00etan, udaletxean bilduko dira. Bakaikuko Udalak gogorarazi du bilera irekiak direla eta edozeinek parte har dezakeela. Auzolana nola egingen den festetarako zehaztuta izan nahi dute. Eta irailetik aurrera Bakaikuko Plan Estrategikoko beste bi lehentasunei helduko diete: etxebizitza eta eskola zaharren eraikina. Biei alternatibak bilatzen hasiko dira bakaikuarrak.

## Bakaikuko Udalak bi baso aprobetxamendu saldu ditu

Bakaikuko Udalak 131.160 euro eskuratu ditu bi baso aprobetxamendu salduz. Aurreneko lotea Aborobil, Sasilatx eta Aizkorazar parajeetan zegoen, eta 1.270 haritz, haritz amerikar eta pagok osatzen zuten, hurrenez hurren, 169 metro kubiko zur eta 1.183 metro kubiko zur egiten zutenak. Udalak, enkantean, 24.491,41 eurotan jarri zuen salgai eta 40.960 eurotan saldu dio Arpana Formacion Forestal enpresari.

Bakaikuko Udalak enkante bidez saldu zuen bigarren baso aprobetxamendua Atxolinsoroe-ta, Arginaroz, Errementarigaztainalde eta Urikidibarren parajeetan zegoen. Enkante horretako hasierako prezioa 76.400,98 eurotan jarri zuen Bakaikuko Udalak eta 90.200 eurotan saldu dio Explotaciones Forstales Zubillaga Saralegi enpresari. Guz-tira, aurreikusi baino 30.267,61 euro gehiago eskuratu ditu Bakaikuko Udalak bi enkante horietan.



Hondakindegiko ikuspegia. ARTXIBOA

## Mank-ek aukeratu du hondakin teknikaria

Hondakinen kudeaketaren inguruko hainbat ardura ditu bere gain aukeratu duten altsasuarrak

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak oposizio bidez hondakin teknikaria kontratatatzeko deialdia egin zuen joan den urtean. Hautaketa prozesua despidituta, Sakanako Mankomunitateak Olatz Garde Mazkieran izendatu du hondakin teknikari lanpostua betetzeko, B mailako lanpostua. Bere egitekoen artean daude, besteak beste: ingurumenaren arloko sentsibilizazio kanpainak egitea; Nafarroako Hondakinen Partzuergoko batzorde teknikoan parte hartzea, herrietako bilguneen kalitateari buruzko kudeaketa-adierazleei jarraipena egitea; Arbizuko hondakindegiko instalazioak ikuskatzea; garbiguneak, larrialdiko etxolak eta ekarpen eremuak ikuskatzea eta Hiri Hondakinen Zerbitzuko erabiltzaileen errekamazioen kudeaketa koordinatzea. Beste eginkizun batzuk ere baditu hondakin teknikariak, esaterako: hondakindegian sartzeko diren hondakinak ikuskatzea eta bertara bota daitezkeen hondakinen gaineko zaltantzei erantzuna ematea; kudeaketa eta kalitateari buruzko sistemaren dokumentazioa; hierarkiako nagusien aginduek betetzea eta Hondakin Zerbitzuko lantaldea koordinatzea.

# Udalak zortzi kontratazio egiteko deialdia egin du

Kultura eta administrazio laguntzaile bata, pintura eta lorezaintzako ofizial bana eta lau peoi kontratatuko ditu. Interesatuak hilaren 28ra arteko epea dute Altsasuko enplegu bulegoan izena emateko

ALTSASU

Altsasuko Udalak aurtengo aurrekontuetan zortzi langabeturen kontratazio egitea jasotzen du. Udalak horretarako Nafar Lan-sarearen 38.430 euroko diru-laguntza jasoko du. Kontratatuko dituzten zortzi pertsonak interes orokorreko edo sozialeko lan eta zerbitzuak egingen dituzte bost lanpostuetatik. Kultur laguntzaileak liburutegia goizez zabaltzearen ardura izanen du. D mailari dagokion lanpostua izanen da, 8 hilabetetako behin-behineko kontratuarekin eta % 68,17ko lanaldiarekin. Baldintza orokorrak betetzeaz aparte, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko titulua eta euskarazko C1 jakite-maila edo horien baliokideak eskatzen dituzte.

Udalak egin duen deialdiaren bidez kontratatuko duen administrazio laguntzailearen lanpostua D mailakoa da ere. Bere kontratua urte erdikoa izanen da, baina lanaldi osokoa. Zerbi-



Udal langileak lanean. ARTXIBOA

tzu Orokorrean, udaletxean, lan egingen du, hainbat arlotan trebatzera joanen den langile bat ordezkatzu. Lanpostu horretarako aurrekoaren baldintza berak eskatzen zaizkie interesa dutenei.

Altsasuko Udalak bete nahi dituen pintura eta lorezaintzako ofizial lanpostuak D mailakoak dira. Kontratatutako bi pertsonak sei hilabetez lanaldi osoan ariko dira udalaren obra eta zerbitzu lantaldean. Azkenik, deialdi beraren bidez, Altsasuko Udalak lau peoi kontratatuko ditu. Aukeratuak diren lau langabetuei D mailako kontratua egingen zaie. Urte erdiz egonen dira udalarendako lanean. Lau pertsona horien lanaldia osoa izanen, eta udalaren obra eta zerbitzu lantaldean lan egingen dute.

Aipatu ditugu azken sei lanpostu horiek bete nahi dituzten interesatuei baldintza orokorrak betetzearekin batera, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko titulua eskatzen zaie. Deialdiaren baldintzetan jaso denez, ez dituzte kontratatuko aurreko urtean udalarendako hiru hilabetez edo gehiagoz lan egin duten pertsonak.



## NAFARROA OINEZ OSPAKIZUN BAZKARIA

**Eguna: Otsailak 23, larunbata**  
**Ordua: 14:30**  
**Tokia: Urdiango frontoia**

**Salneurria:**  
 Helduak 15 €  
 Ikasten ari diren ikasle ohiak 7 €  
 Haurak 5 €

**Izena emateko tokiak**  
**Urdiain:** Kaluxa  
**Altsasu:** Inigo Aritzeta eta Biltoki  
**Olazti:** Ogi Berri eta Barandi  
**Ziordia:** Etxaleku





Sakanako ikuspegia Ergako geodesia puntutik. ARTXIBOA

# Arakil-Burunda errotatik datoz

Jose Luis Erdozia Mauleon euskaltzainak bi toki izenen esanahia errota hitzarekin lotu ditu. Gainera, Atapuerca, Saroi eta Etxarri toponimoen inguruko ikerketa ondu du. Horren berri Beleixe Irratian (FM 107,3 edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)) eman zuen

## SAKANA

Jose Luis Erdozia Mauleonek Euskaltzaindiaren *Euskara* aldizkarian *Euskal toponimo zenbaiten ingurumarian* artikulua argitaratu zuen joan den urtean. Toponimiari buruzko lana do-

kumentazio lan zabalean oinarritzen da. “Gero joan zara toki-ietara eta horrela izan daitekeela ikusi duzu. Ezin zara dokumentazioaz soilik fidatu. Aldaketak izaten ditu. Idazten zuten gehienek euskara ere ez zekiten, hala moduz idazten zuten”. Erdoziak gaztigatu toponimoak deskribatzaileak direnez, gertatu daiteke garai batekoa gaur egun ez egotea.

Ara hasiera duten toki izenak aztertu ditu. “Hemen pila bat dauzkagu: Aralar, Arakil, Arazuri, Araotz, Araia... Batzuk haranetik etor zitezkeela. Nik uste dut n hori ez dela galtzen. Aranberri eta Araberri gauza desberdinak direlako. Bitatik daude”. Gauza bera adierazteko batek n galdu eta besteak ez, Erdoziak ez du uste hala denik.

Etxarriarrak gogora ekarri du Behe Nafarroako Eiheralarre.

“Aralarre agertzen da toki askotan idatzita, oraindik azken bokala galdu gabe”. Aralarrek eta Eiheralarrekin “nahi eta nahiez” zerikusia izan behar zutela ondorioztatu zuen Erdoziak. “Eiheralarre errota tokia da. Eihera zenbait hizkeretan oraindik erabiltzen da: eihera, araia, iera...” Iera ara izan zitezkeela otu zitzaion hizkuntzalariari eta Aralar “argi eta garbi hortik etor zitezkeela”. Hitza- ren eboluzioak horretarako ematen duela dio Erdoziak.

Bestalde, ikerlariak pentsatu zuen “hizkuntza gehienetan errota herri izenetan agertzen da: Bretignolles-le-Moulin, (frantzesia), Molina Seca (gaztelania), Millford (ingeleza), Mulino del Piano (italiera), Layen Mühle (alemaniera). Euskaraz ez dago bat bera ere errotarekin”. Errota hitza rotan edo errueda hi-

tzaren eratorria dela argitu du Erdoziak, gaineratzeko: “aurretik ere irina egin beharko zuten. Gariak eta horiek denak ezagutzen zituzten”. Eihera hitza dagoela ondorioztatu zuen etxarriarrak. “Euskal Herria erabat josita dago, batez ere ibaiak edo errekek dira gehienak, ara osagaia dutena. Esate baterako, Arakil. Guk kisuskil, langil esaten dugu. Bukaerako -e hori kendu egiten dugu. Arakil izanen litzateke errotak egiten dituen”. Sakana zeharkatzen duen ibaian “izugarritzko errota pila egin” dituela nabarmendu du Erdoziak. Hari horri tiraka, etxarriarren iritziz Araia hitza ihara -dia litzateke, errota tokia.

Bizkaia aldean Bolin, bolu edo boru erabiltzen da: bolueta, bolineta... “Molinoren jatorri bera du. B eta m hitzak askotan txandakatu egiten dira euskaraz. Iturmendin bolin-ekin badago toponimo bat”. Erdoziak horiek ikertzeari ere ekin zion. “Dokumentazio askotan Burunda behar-rean Borunda agertzen da. Hau da, sinkopa bat gertatzen da erdiko bokal bat galduta. Errota tokia esateko: Boruneta, Borunta, Borunda, Burunda”. Eta gogorarazi du Burundak mendealdeko hizkerarekin “izugarritzko kidetasunak” dituela.

## Atapuerca

Xabier Kintana euskaltzainaren iritziz “ata edo ate eta puerta. T c bihurtzen zen. Niri oso arraro egiten zitzaidan aldaketa. Etxarrin eta Sakanan asko erabiltzen den hitz bat da porka” Dokumentu zaharrenetan Atapuerca edo Adtapuerca agertzen da. “Garbi dago forum fuero eman du, o hori diptongatu egiten dela eta porkatik puerta”. Beraz, toponimo horren bi osagaia euskarazkoak dira: ate, sarrera edo irteera askoko tokia.

## Sare, Saroi, Sarobe, Sarabe

Toponimo horiek ere nahiko barreiatuta daude Euskal Herri gehieneran. Erdoziak argitu duenez, Sakana erdialdean gehien bat sare erabiltzen dugu. “Baina Urdiaingo Sarabe denok ezagu-

tzen dugu. Beste toki askotan saroi asko erabiltzen da”. Ikerlariak hitz beraren aldagaia direla diote. Baina etxarriarri hori ere arraro egin zitzaion.

Garai batean azienda izateko toki borobilak ziren. Hizkuntzalariak proposatzen du sarabe beheko sarea izan daitekeela, “negukoa”. Sare edo saroi sare goi izan zitezkeela dio, udakoa.

## Etxarri

Izen horren esanahiaren inguruan “beti eztabaida egon da. Arturo Campionek esaten zuen etxe eta harritik heldu zela. Mitxelenak, Salaberrik eta horiek denak gaur egun etxe eta berri- tik heldu dela diote”. Erdoziari hori ere ezinezkoa iruditzen zitzaion. “Hemendik 15 km-ra Etxeberri daukagu. Zergatik mantendu da han eta hemen galdu?” Berri osagaia duten toponimoak aztertu zituen etxarriarrak. “Inon ez da gertatzen kontsonante hori, b, galtzea. Aldatzea bai, esaterako: Itsasperri, b p bihurtuta. Edo Etxeberrik Javier eman du. Mantentzen du: Javierre, Eseberri, Txabarri... Ez du sekula galtzen”.

Etxaberri, Etxaerri, Etxarri segida proposatzen dute beste ikerlariak. “Baina Olaberrik ez du Olaerri edo olarri eman. Hai- zaberrik ez du haizarri. Salaberrik ez du Salaria edo Salarrri. Argi eta garbi gelditzen da etxe eta harritik heldu dela”. Eta Arretxe izateko aukera ukatu du Erdoziak: “Hori harriz egindako etxea litzateke. Baina etxe eta harrik ez du esan nahi harritzkoa denik, sendoa dela bai- zik, baluarte bat bezala”. Hizkuntzalariak gogorarazi du Euskal Herrian lau Etxarri daudela. “Denak gotorlekua izan dira: Etxarri Larraun, Etxarri Etxauri, Etxarri Aranatz eta Xuberoako Etxarri. Guztietan gauza komuna da bastida, baluarte, gotorleku bat izan dela”.

Artikuluak Euskara aldizkariaren 2018ko bigarren argitalpenean argitaratu zen (62,2). 2017ko data du, “urte bat beranduago argitaratzen delako” argitu du Mauleonek. Artikuluak bigarren zati bat izanen du etxarriarra Itsesi, Pamplona, Vasconia, Navarra eta Euskal Herria toponimoez ariko baita. Aurreratu duen bakarra da berarendako Pamplona izen euskalduna dela, “eta ez da nik asmatuta”. Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea**



## Nola komunikatu dementzia duten pertsonekin?

Galdera horri erantzuten saiatuko dira Josefina Arregi klinikan astelehenean egingen den tailerrean. Nafarroako Alzheimer gaixoen Senideen Elkarteak “komunikazio jarrera aldaketan aurrean erabili beharreko tresna” tailerra emanen du, 16:30etik 18:00etara. Elkartetik gaztigatu dutenez, “dementzia duen pertsona bat pittekan joaten da okerrera. Okertze hori hizkuntza, memoria, afektuak edota pertzepzioen aldaketetan sumatzen da; eta horrek denak zaintza lanak zaildu egiten ditu”. Astelehenerako antolatutako tailer horretan elkarteko kideek “komunikazioaren estrategiak erabiltzearen garrantzia” azalduko dute, “gaixo dagoen pertsonaren jarrera aldaketak aurreikusi eta gutxitzeko”.

Tailerrean izena emateko 948 275 252 edota 948 410 299 telefonoetara hots egin daiteke. Zortzi edota hamar pertsona behar dira gutxienez tailerra egin ahal izateko.



Elkartek sinadurak biltzen. ARTXIBOA

## Amianto aztergai izanen dute asteazkenean

Nafarroako Amianto Biktimen Laguntza eta Defentsa Elkarteak, Adavane, hitzaldia antolatu du asteazkenearako, 18:00etan, Iortia kultur gunean. Elkartek urtebeteko ibilaldia egin du eta hitzaldian orain arteko jardunaren berri emanen du. Horrekin batera, amiantoarekin lan egin zuten pertsonak eta haien senideek kontuan izan beharreko oharrek ere zabalduko dituzte.



Letrak herri mugimenduetako eta udaletako ordezkariak jasoko dituzte manifestazioan. ARTXIBOA

# 14 udal tren sozialaren alde, AHTren kontra

Tafallako tren geltoki parean, larunbatean, 17:00etan, aldarri hori egingen duen kontzentrazioarekin bat egin dute eta sakandarrak hartan parte hartzera deitu dituzte. ELAk, LABek, CGTk, STEILASEk eta ESK-k bat egin dute deialdiarekin

### SAKANA

Erdialdea Trenaren Alde plataformak tren sozialaren aldeko kontzentrazioa antolatu du larunbaterako. Deialdi horrekin Nafarroako hainbat eragilek bat egin dute. Tartean Sakanako udal guztiak, Altsasukoa ezik. Hala jakinarazi du Sakana Trenaren Alde AHTrik ez! plataformak. Larunbateko kontzentrazioa deitzaileek jakinarazi dutenez, “egun gozatzen dugun trenaren alde egingen dugu, Nafarroa egituratzen duenaren alde; betiko bidetik trenbidetik ibiltzen denaren alde”. Tafallako biharko elkarretaratzean Abiadura Handiko Trenaren (AHT) eta trenbide korridore berri bat eraikitzearen kontra egingen dute ere.

Bilkuraren leloa *Si al tren social. AHT-TAP gelditu!* izanen da. Bilkurara joaten direnen buruen gainetik ageriko diren letra handiekin ikus-araziko dute leloa. “Gure aldarrikapenaren adierazpen indartsua izanen da”. Letra horietako bakoitzari launa pertsonen artean eutsiko diete. Horren ardura herri mugimenduetako eta udaletako ordezkariak izanen dute, tartean sakandarrak.

Sakana Trenaren Alde AHTrik ez! plataformak Tafallako deialdiarekin bat egin du eta sakan-

darrak ere hala egitera animatu ditu. Bihar Tafallara joateko autobusa antolatu du plataformak.

### Bost sindikatuk kontzentrazioa deitu dute

ELAk, LABek, CGTk, STEILASEk eta ESK-k Tafallako biharko kontzentrazioa deitzearekin batera, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektuaren kontra “eginen duen bide komun bat osatzeko bultzada ematea eta nafarren borondatea errespetatuko duen alternatiba bat eraikitzeko konpromisoa hartu dute”. ELAk, LABek, CGTk, ESTILASEk eta ESK-k AHT egitasmoaren kontrako “aurkako-

tasun irmoa” adierazi dute. Euren iritziz, “aldaketaren gobernuak ezin du AHT ezinbesteko proiektutzat hartu. Gizarte kohesioaren kontra doan, ingurumenaren eta bioaniztasunari konponezinezko kaltea sortzen dion diru xahutzea da”.

Tafallako deialdiarekin bat egin duten sindikatuak kideen ustez, “proiektatutako azpiegitura zentzugabekeria izateaz aparte, diru eta energia xahutzea da”. Boskoteak gaineratu duenez, “gero eta gehiago dira garapen basati horren kontra egiten dutenak, populazio guztiaren baliabideak agortzen ditu soilik pagatu dezaketenei zerbitzua emateko. Klima aldaketa eta

petrolioaren agortzearen tesuinguruan behar dugun jasangarritasunetik urrun dagoen proiektua da AHT”.

ELAk, LABek, CGTk, ESTILASEk eta ESK-k gogora ekarri dute Europako Kontu Auzitegiak joan den urteko txostenean jasotakoa: “Europako Abiadura Handiko Sarea zatikatutako sistema ez eraginkorra da, proiektatu den toki askotan beharrezkoa ez dena. Aitortzen du hobe dela egun dauden trenbideak hobetzea aurreikuspenak beteko ez dituzten abiadura handiko trenbideak egitea baino eta jakinarazten du kasu batzuetan inbertitutako 369 milioiko minutu bat aurrezten dela”.

Sindikatuaren ustez bestelako lehentasunak daude: “hezakuntza eta osasun arloko murrizketak kentzea, migratzaileei harrera egokia egiteko edo pentsioak ordaintzeko baliabideak behar dira. Gutxi batzuek minutu batzuk lehenago iristeko milioiak gastatzea lizuna dela iruditzen zaigu”. Heldu den urtean abiadura handiko eta distantzia luzeko trenen liberalizazioa etorriko dela eta sindikatuaren iritziz “guztion diruarekin trenbideak ordaintzen dira enpresa pribatuek negozioa egin dezaten”.

Sustapen Ministerioak AHTren Euskal Y-a eta Nafarroako korridoreak lotzeko bi proposamen aurkeztu zituen. Batek Sakana puntatik puntara zeharkatzen du lotura Gasteizen egiteko. Beste aukera Iruñetik Altsasurako bidea egitea eta Aizkorri azpitik Ezkio-Itsason lotura egiteko. Bi proposamen horiei Nafarroako Gobernuak egindakoa gehitu behar zaio: Iruñetik Baikaikura arteko trenbide berria gero handik Ezkio-Itsasorantz jotzeko.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETKEA

**Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta**

Asteleheneetik ostiralera  
**Eguneko menua  
10€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

www.pescaderiamariaeugenia.com  
**Arratsalde zabalik**

**Datorren  
astetik  
aurrera  
angulen  
zozketan  
parte hartu!!!**

**mariaeugenia**  
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725





## Zortzikoa, elkartasun dantza

Altsasuko auziagatik zazpi herritar Arabako Zaballa espetxean preso daude. Eta haietaz gogoratu ziren makina bat altsasuar larunbat eguerdian. Kintada guztiak elkartzen ziren egunean Altsasukoak Aske herri plataformak deituta elkartasun zortzikoa dantzatu zuten lortia kultur guneko zabalgunean.

## Altsasukoak aske uztea eskatu du Eusko Legebiltzarrak

Epaia irmoa izan bitartean. EAJk, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek onartu zuten adierazpena

### ALTSASU

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordean Altsasuko auzia aztergai izan zuten herenegun. Bilera horretan legez besteko proposamena onartu zuten EAJren, EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin eta PSEren eta PPren aurkakoekin. Onartutako idatzian Eusko Legebiltzarrak “Altsasuko gazteek presondegian dagoeneko eman duten bolada luzea kontuan hartuta eta zigorrak gehiegizkoak direla ikusita, kartzelatik atera ditzatela zigorturik dituztenak epai-bideak bukatu arte”.

Bestetik, Eusko Legebiltzarrak bere babesa adierazi dio “Altsasuko bakearen eta bizikidetzaren alde”. Erakundeak “epaileen erabakiak errespetatuta ere, ez dago ados Altsasuko gazteen kausa Auzitegi Nazionalaren jurisdikzio berezira aldatu izanarekin, eta kezkatutako dago, zeren eta litekeena da instrukzioak, ahozko ikustaldiak eta epaiak berak defentsarako eskubide legitimoa urratu izana, Amnesty Internationalek eta halako beste erakunde batzuek salatu duten bezala”.

Herenegun onartutako legez besteko proposamenean Eusko Legebiltzarrak hainbat eskubideren defentsa egin zuen: errugabetasun presuntzioa, segurtasun juridikoaren eta legezko-tasunaren printzipioa eta indibidualizatzeko, erabakitze eta zigorraren neurrikotasunerako eskubideak. Orobat arbuaitzen dugu eta gehiegizkoa iruditzen diskriminazioaren astungarria aplikatu izana”. Aldi berean, Eusko Legebiltzarrak “Altsasuko udalerriaz eman den irudi desitxuratu” arbuaitu du, “oso urruti” dagoena “udalerrri plural horren egiazko itxuratik, non diferenteak elkarrekin normal bizi diren egunerokoan. Alde horretatik, balioan jarri nahi dugu gertaerok ikusita herritarrek hartu duten jarrera”.

Bitartean, Altsasuko auziagatik preso dauden Adurrek, Jokinek eta Oihanek 824 egun egin dituzte preso gaur. Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek, berriz, 255 egun egin dituzte preso, 2016ko udazkenean preso egindako 37 egunak batu behar zaizkienak. Guztiak Arabako Zaballa espetxean daude preso.



Arbizuarrak auziaren kontra. UTZITAKOA

## Gure Esku Dago, Kataluniarekin elkartasunez

Igandean, 12:00etan, Donostiako Katalunia plazatik manifestazioa abiatuko da

### ARBIZU

Espainiako Auzitegi Gorenean Kataluniako prozesu independentistako buruzagi politiko eta zibil batzuk epaitzen hasi ziren asteartean. Hori dela eta, Gure Esku Dagok deituta hainbat kontzentrazio egin ziren asteartean. Gure Esku Dagok oinarrizko hiru aldarri egin zituen: konponbidea, demokrazia eta askatasuna. Horiei “elkartasuna aterpe” hitzak gehitu zizkion deialdietako leloa osatzeko. Kontzentrazioak egin ziren herrietako bat Arbizu izan zen. Gure Esku Dagoko ordezkariak adierazi zuten, “preso dauden buruzagi katalanen askatasunarekin batera, herritar guztien eskubideak daude jokoan”.

Gure Esku Dagok oinarrizko hiru aldarri egin zituen atzo. Lehenik, “epaiketa denon kontua da. Batetik, prozesu judizial horrek oinarrizko eskubideak urratzen dituelako eta, beraz, denon eskubide zibil eta politikoak jokoan jartzen dituelako”. Gure Esku Dagotik, bestetik, salatu zuten, “erreferendum demokratiko bat epaitu eta zigortu nahi dute. Erabakitze eskubidearen kontrako epaiketa da, herrien autodeterminazioarako eskubidea ukatu nahi duena”.

## Tortura salatu eta torturatuei aitortza eskatzeko

Sortuk iluntasunetik argitasunera ekitaldia antolatu du Iturmendiko plazan, bihar, 13:00etan

### SAKANA

Euskal Herriko torturaren kontrako eguna herenegun izan zen. Duela 38 urte Madrilgo Carabanchelgo espetxean hil zen Joxe Arregi, Espainiako Poliziak atxilotu ondoren egindako torturen ondorioz. Tortura errealitate bat dela adierazi dute Sortuko kideek. Gaineratu dutenez, “benetako erreparazioa eman dadin, tortura Estatu espainiarrak erabili duen metodo sistematikoa izan dela aitortu beharra dago. Bake prozesu integral bat bultzatu behar dugu, urte luzez modu kontzientean estali diren egoerak ikustaraziz eta aitortuz, ez errepikatzea berma dadin. Militante politikook eta inork, halakorik berririo inoiz jasan ez dezagun”. Horregatik, Nafarroako Gobernuari eskatu diote Sakanan izan den errealitate hori “lehenbailehen iker dezan”.

2018an Sortuk jakinarazi zuen Sakanan 117 tortura kasu izan zirela. Baina “torturaren errealitatea ikertu ahala 117 zenbakia zaharkituta geratu zaigu, dagoeneko 149 tortura kasu egiaztatuak ditugu eta”. Azken kopuru hori “herri honek askatasunaren eta demokraziaren alde borrokatzeagatik jasandako sufrimenduaren adierazlea da”. Sortutik gogorarazi dutenez, “urteak dira Sakanan torturaren errealitatea iluntasunetik argitasunera igartzeko pausoak egiten ari gara”. Biharko Iturmendin antolatu dute ekitaldia “iluntasunetik argitasunera pauso berri bat emateko asmoz, Sakanak eta Euskal Herriak nahi duten etorkizuna askatasunez eraikitze”.

Bestalde, Sortuk buruzagi kataluniarren kontrako epaiketa salatzeako kontzentrazioa deitu zuen asteartean Etxarrin. Igandeko Donostiako manifestaziora joateko deia egin zuen.



Urruntzea salatzeako muntaia. UTZITAKOA

## Presoen urruntzearen kontra egin zuten Etxarri Aranatzan

Etxerat-ek deituta ostiralero kontzentrazioa egiten da Etxarriko plazan. Euskal presoen Euskal Herriratzea aldarrikatzen da eta ostiralean presoen urrunketaren ondorioetako bat salatu nahi izan zuten: presoak bisitatzeke joan-etorrietan izaten diren istripuak. Azkena Luis Mariñelarena Gartziandia preso etxarriarra bisitatzeraz joaten ziren bi lagunek izan zuten.

## Etxarri Aranazko gaztetxean sartu direla salatu dute

Etxarriko Gazte Asanbladak (EGA) jakinarazi du ostiralean gaztetxean sartu zirela. EGAtik gaztigatu dutenez, diru-baliorik zuen ezer ez zuten lapurtu, baina sartu zenak eraikuntza guztia miatu eta hainbat dokumentu jabetu zen. EGAtik gaineratu dutenez, “honek txakur kaka usaina dauka”. Duela aste batzuk ez zuten sartzea lortu.

## Lakuntzako eta Urdiaingo alkateak hauteskundetara

EH Bilduk jakinarazi duenez, Lakuntzako eta Urdiaingo alkateak koalizioaren alkategaiak izanen dira maiatzaren 26ko udal hauteskundetan. EH Bildutik jakinarazi dutenez, bai Lakuntzan bai Urdiainen, Patxi Xabier Razkin Sagastibeltzaren eta David Oroz Alonsoren hautagaitzak izan dira alkatetzarako aurkeztutako bakarrak.





Olatzagutiako ikuspegia. ARTXIBOA

## Olatzagutiako herri-basoan azienda sartzeko prozedura

### OLATZAGUTIA

Herri lurren edo komunalen aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren 40. artikulua aldatu zuen Olatzagutiako Udalak. Han jasotakoari jarraituz, azienda herriko basoan martxoaren 31tik aurrera sartu daiteke. Horretarako, ordea, abeltzainek udala gaztigatu behar dute, udal txean dagokion eskaera aurkeztuz. Idatzi horrekin batera komunalean sartu nahi den aziendaren kopurua, haien krotalen zenbakiak eta osasun kartillak gehitu behar dira.

Olatzagutiako herri-basoan udaberrian sartzen den azienda heldu den urteko ilbeltzaren 20rako atera beharko dituzte abeltzainek. Zaldien kasua salbuespena da, 2020ko martxoaren 28ra arte egon baitaitezke sasi-garbitze eremuan egon badaitzke.

Herri-basoan azienda sartzeari abeltzainek pagatu egin behar dute. Udalari aitortutakoaren arabera zergak pagatu beharko dituzte.



Sagrado corazon ikastetxea. ARTXIBOA

## Udalaren eta Sagrado Corazon ikastetxearen kirol hitzarmena

Udalak ikastetxearen kirol azpiegiturak erabiltzeko aukera izanen du eta ikastetxeak igerileku estalia

### ALTSASU

Altsasuko Udalak eta Sagrado Corazon ikastetxeak hitzarmena sinatu berri dute. Horren arabera, Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuak edota Atabo Altsasu SL enpresa publikoak aipatu ikastetxeko kirol azpiegiturak erabiltzeko aukera izanen du. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, “horrela, udal kirol eskaintza garatzeko aukera izanen du udalak, beti ere, ikastetxeak erabiltzen ez duen ordutegian”. Aldi berean, Sagrado Corazon ikastetxeak aukera izanen du Zelandiko igerileku estaliak erabili eta, hala, bere prestakuntza jarduna garatzeko. Batek eta besteak kirol azpiegiturak erabiltzeko nahia 20 eguneko aurrerapenarekin jakinarazi behar dute. Hitzarmenean jasotakoaren arabera kirol azpiegituren erabilerak

erakundeendako ez du inolako kostu gehigarriarik izanen eta elkarrekikotasun erregimena izanen dute.

Ollok argitu digunez, momentuz Sagrado Corazon ikastetxean udala ez da eskaintza jakinik ematen ari, “baina hitzarmenaren helburua da, beharra suertatzen bada, ikastetxearen azpiegiturak prest egotea”. Alkateak gaineratu duenez, “hitzarmen hori Altsasuko ikastetxeekin izan nahi dugun elkarlanaren beste lagin bat da”. Ollok jakinarazi du berriki sinatutako hitzarmenaren modukoa aurretik sinatua dutela Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuak eta Altsasuko Udalak. Altsasuko alkateak azpimarratu du “elkarlan hori urtero ikastetxeei, gu-raso elkarteei eta irakaskuntza kooperatibei zuzendutako dirulaguntzen deialdiaren barruan kokatu behar da”.



Iraileko aurreneko igandean omenaldia egiten da Otsaportillon. ARTXIBOA

## Otsaportilloko lezearendako lege babesa bidean da

Foru administrazioak Memoria Leku izendapena eman dio babestu, seinaleztatu, kontserbatu eta sustatzeko

### SAKANA

Nafarroako Gobernuaren Memoriako Lekuen Behin-behineko Erroldan 23 toki daude. Horietako bat da Otsaportilloko lezea. Francoren aldekoek 1936ko estatu kolpearen ondoren gertatutako giza eskubideen urraketekin edo biktimen memoria eta erreparazioarekin dute harremana. Haietako zenbaiten kontra erasoak izan dira eta haiek babesteko premia zegoela ikusi zuen Nafarroako Gobernuak. Hala, Nafarroako Memoriako zenbait Leku era horretan aitortzeko prozedurari hasiera eman dio, espazio horiek babestu, kontserbatu, seinaleztatu eta hedatzeko lana egitearren.

Memoriako leku bezala aitortzeko prozesua 10 tokirekin abiatu du foru administrazioak. Horietako bat da Otsaportilloko lezea. Handik 11 gizona koren gorpuzkiak atera zituzten Aran-

zadi zientzia elkarteko kideek. Meliton Agirre Lezea, Francisco San Roman Galbete, Domingo eta Francisco San Roman Otxoa, Jose Ubeda Sanchez, Victor Urkijo Tobalina eta Migel Bergera Bureau zirenak identifikatu zituzten. Baina zenbait gorpuzki identifikatzeko daude oraindik.

Leze gainean dagoen Jose Ramon Andaren eskultura jarri aurretik lezera kaskailu kamioi-kada bat bota zuten, aztarnak borratzeko. Ondoren, eskulturrari hainbat pintaketa egin dizkiote.

Otsaportilloko lezearen ondoan 1936ko estatu kolpearen ondorioz erailldako omenezko ekitaldia egiten da 1980tik. Etxarri Aranzoko Udalak eta erailldako senideek antolatu zuten 2016ra arte. 2017an ibarreko 14 udalek hitzarmena sinatu zuten ordutik elkarrekin antolatzen dute.

**GOIZERO 10:00-12:00**  
**EGUN ON SAKANA**

10:00 Prentsa eta eguraldia  
10:15 Batetik bestia  
10:20 Eguneko albisteak  
10:45 Hizketan  
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin  
11:55 Agurra

**beleixe**

**DENBORALDI BERRIA!**

**ZUZENEAN**

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

**ONLINE**  
**ENTZUTEKO**  
**GUAIXE.EUS**



## Attun Zarko, agur

Irañetan larunbatean ospatu zuten inauteria. Goizean gosalduta ondoren, kalejiran, goitik-behera txuriz jantzita zihoan segizioa ezkongabeen etxeetan ezpel paxoak utzi zituen. 50 bat irintar bazkaltzera elkartu zen. Iluntzean Attun Zarkoarekin kalejira egin zuten. Ihotetako pertsonaiak sutan bukatu zuen. Ihotea bukatzeko hondarrak afaldu zituzten.



IZASKUN ETA MIREN

## Aurtengo ihote egutegiak aldaketak ditu Etxarrin

Zalduniyote igandean ospatzen den larunbatera pasako da eta hiri-ihotea izanen da

ETXARRI ARANATZ

Ihoteak indartzeko asmoz bileran elkartu ziren Etxarri Aranazko iyote batzordea, aurtengo kintoak, Etxarri Aranazko Gazte Asanblada, udala eta tabernariak. Aurtengo inauteri ospakizunetarako larunbat bat hartzea aztertu zuten eta baita erabakia hartu ere. Hala, astearteyote aurreko igandean ospatzen den Zalduniyote larunbatean ospatzera pasako da. Eta egunaren aldaketarekin batera, karakterizazioa ere aldatu egingen daio, ihoteen haurren eguna izatetik hiri-ihote eguna izatera pasako da.

Ihotearen antolatzaileek Zalduniyote berrirako, martxoaren 2rako, etxarriar guztiak mozorraztera eta parrandan parte hartzera gonbidatu dituzte. Egun horretan Gazte Asanbladak moztu txapelketa antolatuko du. Musika eta potea egonen da eta kintoek plazan musika jarriko dute. Tabernetan festa giroa izanen dela ziurtatu dute.

Aldaketa gehiago ere izanen dira. Astearteyoteak (martxoak 5) aldaketak izanen ditu. Herri-ihotea izanen da aurrerantzean eta, beraz, txatarrez eta trapu zaharrez jantzita kalera ateratzea proposatu dute antolatzaileek. Kintoek iyote festari akabera emateko, Kixkimau Pintto berreskuratu dute eta ihote-segizioa osatuz herrian barna kalejiran eramanen dute.

Kixkimau Pinttok Lantz herriko inauterietako Ziripoten edo Altsasuko Juantranposo pertsonaiaren itxura izanen luke. Beste osagai bat gaineratuko diote maiatzaren 2an, ttuntturroa. Orain dela urte gutxira arte kintoek erabiltzen zuten txanoa da ttuntturroa. Bestetik, eskuan makila izanen du, beharrezkoa bada parean daukana zirikatzen. "Estilizatuagoa", Kixkimau Pintto Etxarri Aranazko erraldoietako bat da.



## Zortziko kinto parranda

Hiru egunetako ospakizunak izan zituzten kinto bakaikuarrek asteburuan. Aurtengo kintoekin batera kinto zahar eta gazteek osatu zuten zortzikotea izan zen festaren protagonista. Jan-edanak ez zitzaizkien falta izan asteburu guztian. Eta horiek ordaindu ahal izateko larunbat goiza Bakaikun barnako kinto-eskean eman zuten.



UTZITAKOA

## Zortzikoa aterpean

Kinto ospakizunetarako asteburua hartu zuten Urdiainen. Kintada guztiek larunbatean bat egin zuten, eguraldi ederrarekin. Aurtengo zazpi kintoek aurreko urteko, hurrengo urteko eta beti kintoekin parrandan aritu ziren asteburuan. Domekan eguraldiak ez zuen lagundu eta kintoek zortzikoa beteta zegoen frontoian dantzatu zuten.



## Kinto koadrila ederra

Iturmendin aurten lau kinto ziren, baina ospakizunetarako, ohikoa denez, kinto zaharrek eta kinto gazteak batu zitzaizkien 28 lagunekoa koadrila osatuz. Ostiralean afaltzera elkartu ziren eta ondoren hasi zuten parrandak domeka goizaldera arte iraun zuen. Guztia pagatzeko, jakina, kinto-eskea egin zuten larunbat goizean.



## Kinto ospakizunak, agur

11 gazte zierdiarrek osatu zuten kinto-segizioa asteburuan. Aurtengo kintoak pare bat ziren, gainontzekoak gazteagoak edo helduagoak ziren. Guztiak ostiralean bazkaltzera elkartu ziren eta ordutik aurrera parranda handiak egin zituzten, zeinetan jatekoa eta edatekoa ez zen faltatu. Horiek zierdiarren eskuzabaltasunari esker pagatu zituzten.





Biharko zortzikoa entseatzten. Martxoaren 2an hiri-ihotea ospatuko dute Ziordian eta martxoaren 5ean haur-ihotea. UTZITAKOIA

# Herri-ihotea Ziordira bueltan

Kultura Batzordeak sustatuta, Ziordiko garai bateko ihotea berreskuratzeko lana egin da urte eta erdi inguruz. Fruituak bihar, 19:00etan, ikusteko aukera izanen da, gimnasiotik abiatuko den kalejiran

## Alfredo Alvaro Igoa ZIORDIA

Aurreko hiru urteetan ihoteak ospatu dituzte Ziordian. “Ez nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutakoak, baizik eta hiri-giroan ospatzen direnak. Ihoteetako larunbatean izanen da: kalejira arratsaldean, afaria eta ondoren, musika pixka bat. Egun horretan herrian gelditu eta herrian zer edo zer egiteko ohitura sortu dugu”. Olatz Irizar Martinez zinegotziaren azalpena da hori. Hiru urteko eskarmen-tuaren ondoren, Ziordiko Kultura Batzordeak ihoteak berreskuratzeko dituela gaztigatu digu Irizarrek. “Duela hiruzpalau urte Kultur Batzordea lanean ari da eta hasieratik haren asmoa izan da garai bateko ihoteak, Ziordian karnabalak deitzen zirenak, berreskuratzeko. Arrazoi bategatik edo besteagatik atzeratzen joan gara berreskuratzeko

lan hori, besteak beste, garai bateko “karnabala” berreskuratzeko zailagoa iruditzen zitzaigulako”. Irizarrek azaldu digunez, urte eta erdi inguru darabate horretan lanean eta “aurten lana ikus gai egingen dugu”.

Juan Garmendia Larrañagak *Carnaval en Navarra* liburuan jaso zuen zein pertsonaia zeuden Ziordian eta zein egunetan ospatzen zen. Baina askoz gehiago ez zekiten batzordekideek. Zinegotziak jakinarazi digunez, Ziordiko ihoteak “antza handia dute inguruan ospatzen direnekin: Olatzagutiakoekin, Altsasukoekin... Burundan ospatzen diren horiekin”. Garmendiak aipatzen duenez, hiru eguneko ihotea zen Ziordikoa.

## Garai batekoa

Inauteri ospakizunak **ostegun gizen** egunarekin hasten zituz-

ten ziordiarrek. “Egun horretan etxez etxeko eskea egin eta jatekoak biltzen zituzten, ondoren afaltzeko”. Ihote-ospakizunen bigarren eguna igandean izaten zen, **domekan karnabala** izena hartzen zuena. Irizarrek azaldu digunez, “egun hori umeendako zen. Bai neskak bai mutilak moztarrotu egiten ziren eta helduak pixka bat xaxatzen egoten ziren”. Ziordiko ihotea **astarte karnabala** egunarekin despiditzen zen. “Pertsona helduek ospatzen zuten, bai emakumezkoek bai gizonezkoek. Egun osoa jendea xaxatzen egoten ziren. Egunaren bukaeran dantza egiten zuten plazan eta agotzezko popin bat erretzen zuten. Horren inguruko datu asko ez ditugu”. Hura egiteko ardura kuadrillaz kuadrilla pasako da urtero.

Irizarrek argitu digunez, ihotean hiru pertsonaia zeuden:

## Biharko herri-ihotearen egitaraua

Kultura Batzordekoei “hiru egunak ospatzea gehiegi iruditzen zitzaigun. Egun batekin hasiko gara. Ondo ateratzen baldin bada, nork daki hemendik urte batzuetara zer egingen den!”. Ihote kalejira 19:00etan gimnasiotik abiatuko da trikitilariak eta pandero-joleak girotuta. Segizioak aurreneko geldialdia goiko iturrian egingen du. Han zortzikoa dantzatzeko aukera eta auzate txikia izanen dira kalejiran berriz abiatu aurretik. Hurrena, gauza bera egingen dute ermita parean. Eta kalejira plazan despidituko da. Agotzez betetako popina erre eta haren inguruan zortzikoa dantzatzeko dute. Afari-merienda eskainiko dute han.

zomorroa, artzaina eta pezkina edo galdragilea. “Hiru pertsonaia berreskuratu ditugu. Herrian barna nola jantzen ziren zabaldu dugu”. **Zomorroa** “txuriz jantzen da, praka eta atorra txuria, zatak eta apainduta joaten da, eta maskara edo karatula eramaten du. Unanuko mamuxarroen antza du”. **Pezkinak** “mahoizko prakak eta zakua jantzen ditu. Apainduta joaten da. Pertz batean errautsa eramaten du”. **Artzaina** “garai bateko artzain jantzi arrunta, baina aurpegia zikinduta du eta danborra eta zare edo saski bat eramaten ditu”.

Apaintzearena argitu nahi izan digu zinegotziak: “edozer gauzak balio du, beti ere, garai bateko abeltzaintzarekin eta nekazaritzarekin lotutako gauzak. Inguruko herrietan ikusi ditugunak izan daitezke. Guk abantaila hori daukagu inguruko herrietan ikusi ditugula azak, txapelak, farak, oihal zatiak... bururatzen zaiguna”. Kultura Batzordeko kideek nahi lukete ihote-segizioan hiru pertsonaia egotea. “Ikusmina sortu da, ea zeinek erantzuten duen”.



## Zortzikoa dantzatzeko dute, baina...

25 bat ziordiarrek zortzikoa “ikasi edo erdi ikasi” dute. Baina ez herrikoa. Irizarrek: “badakigu Ziordiko zortzikoa existitzen zela. Bakarren batek partitura omen du. Eta esaten ari direnez, bakarren batek dantzatzeko ere badaki. Baina ez dugu lortu nork erakustea guri Ziordiko zortzikoa”. Nolabait hasi behar zutela eta “zerbait egiteagatik, edozein zortziko ikasten hastea” erabaki zuten. “Erakutsiko zigun pertsona bat topatzea dexente kosta zitzaigun. Nahia Bengoetxeak Altsasuko zortzikoa erakutsi digu”. Jakin badakite hori ez zela Ziordian dantzatzeko zena, “baina hasteagatik eman dugu pauso hori. Guk asko egokitu dugu, Altsasuko oinarria izan da”.

Jantziarena bilaketa lan handia eskatu die batzordeko kideei. Irizarrek azaldu digunez, “Garmendiak pertsonaia ongi jaso zituen. Baina ez zuen jaso nola zihozten jantzita. Jende heldu dexente bizirik dagoen arren, oso jende gutxi zeukan buruan. Batzuk gogoratzen zuten egiten zela, baina ez zekiten esaten nola. Ruperta Gamizen eta Jose Agirreren testigantzetan oinarrituta atera dugu izan zitekeena. Ehuneko ehunean ez dugu asmatuko, baina...”

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAKZEN EGUERDIA BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 15

**ALTSASU Altsasukoak Aske II. Literatur Lehiaketaren sari banaketa emanaldia.**  
18:00etan, lortian.

**ALTSASU Gazte agenda. Kandelak egiteko tailerra.**  
18:00etan, lortia kultur gunean.

**BAKAIKU Festak prestatzeko batzarra.**  
18:30ean, udaletxe auzoan.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.**  
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

**ALTSASU Adela Sanchezen eta A. Arrizabalaren artelanen erakusketaren mustutzea.**  
19:30ean, Dantzaleku tabernan.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira.**  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske.**  
20:00etan, udaletxe parean.

**IRURTZUN Loco Desatino antzezlanaren emanaldia.**  
21:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU La favorita filma.**  
22:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Dantza filmaren emanaldia Telmo Esnal zuzendariaren aurkezpenarekin.**  
22:00etan, lortia kultur gunean.

**OLATZAGUTIA Jon Estrander artistaren Mr. Kebab ikuskizuna.**  
22:30ean, kultur etxean.

## LARUNBATA 16

**ITURMENDI Torturaren aurkako**

**eguna. Sakana 149+ #aztnugal iluntasunetik argitasunera ekitaldia. Sortu Sakana.**  
13:00etan, plazan.

**ALTSASU Gazte agenda. Henna tatuajeak egiteko tailerra.**  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU Cabare a la gaditana. Las niñas de Cadiz konpainia.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ETXARRI ARANATZ El Muerto Vivo taldearen kontzertua.**  
21:00etan, kultur etxean.

## IGANDEA 17

**OLATZAGUTIA Artikutzara ibilbidea eginen du Sakanako Mendizaleak taldeak.**  
07:00etan, taldearen egoitzatik.

**ALTSASU Sarbilgo mendizerrara Izutik gora ibilbidea eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.**  
08:00etan, egoitzatik.

**ALTSASU Max txikia haurrendako ikuskizuna. Arena en los bolsillos konpainia.**  
12:00etan eta 13:15ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU El regreso de Mary Poppins haurrendako filma.**  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**OLAZTI Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoaren Xaguxarroki kondea ikuskizuna.**  
17:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Gazte agenda. Karta jokoak: uno eta dos.**  
18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU La favorita filmaren emanaldia.**

19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Dantza filmaren emanaldia.**  
19:40etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 18

**ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataforma.**  
12:00ean, udaletxearen parean.

**ALTSASU Komunikazio jarrera aldaketen aurrean erabili beharreko tresna hitzaldia.**  
16:30etik 18:00etara, Josefina Arregi klinikan.

**ALTSASU Altsasuko musika eskolaren Pop-rock ikuskizuna.**  
18:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 20

**ALTSASU Amiantoren inguruko hitzaldia. ADAVAN elkarte.**  
18:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU El poemario del olvido liburuaren aurkezpena Ventura Ruiz egilearekin eta Blanca Mas Rubio gitarra jolearekin.**  
19:00etan, Haritza tabernan.

**ALTSASU Psiconautas. Los niños olvidados filmaren emanaldia.**  
19:00etan, Dantzaleku tabernan.

## OSTEGUNA 21

**ETXARRI ARANATZ Iyoteak: Andrekunde.**  
19:00etan, plazan.

**ALTSASU The old and the gun filmaren emanaldia.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Entre dos aguas filmaren emanaldia.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.



**URDIAIN Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Otsailaren 11tik 22ra.**  
Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, liburutegian.



**ALTSASU Barne Barnetik Alvaro Mundiñano etxarriarraren margolanen erakusketa.**  
Otsailaren 5etik 24era. Astelehenetik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



**ALTSASU. Adela Sanchezen eta A. Arrizabalagaren artelanen erakusketa.**  
Otsailaren 15etik apirilaren 15era. Asteartetik ostiralera 16:00etatik 1:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzaleku tabernan.

## ZORION AGURRAK



**Markel Urteaga**  
Zorionak potxolo!  
Ondo pasa zure eguna  
familia guztia  
partez!!



**Candida Cia Arraras**  
100 urte bete zenituen  
larunbatean,  
txapelduna!! Zorionak  
familia guztia  
partez!!





## HIL-OHARRA

## Felix Urra Mariñelarena joan zaigu



MIKEL GOLDARAZENA GOÑI

Urte hasieran joan zitzaigun Felix. Ia ia abisatu gabe eta bat batean. Pertsona handia izan zen Felix. Gorputzaz eta bihotzez. 50. hamarkadan emandako gizona.

Ofizio eta afizio asko izan zituen Felixek: euskara ikaslea, euskara irakaslea, Irurtzango Kontseiluko alkatea,

postaria lanbidez, preso izandakoa, sindikalista, ezker abertzaleko kide historikoa, barrakaren arduraduna, presoen aldeko ekintzaile nekaezina, Gure Esku taldeko partaidea, botxa jokoan aditua, etxeko baratzean langilea, Euskal Herriko Mus txapelketatako arduraduna... Leku askotan egon zen eta guztietan langile nekaezina.

Historia hurbil gogorrean hor egon zen eta "transatlantikoak" biratu egin zuenean bera ere hor egon zen, egoera berrian lan egiteko prest.

Irurtzunen lan asko egin zuen eta Irurtzundik kanpo ere bai. Sakanan, Nafarroan eta Euskal Herrian, zenbait arlotan Irurtzun aipatu eta ondoren Felix agertzen zen. Pertsona erreferentziala. Lagun asko egin zituen bere bizitzan zehar eta urtarilaren 13an egindako omenaldian horrela ikusi genuen. Modu borobilean esana, Felixek bere bizi osoa eman zuen Euskal Herriaren askatasunaren borrokaren alde.

Zauden tokian zaudela, eman eskuminak Pituti Osinagari, Pello Alzueta, Maria Josune Carrioni eta gainerako kide guziei. Urte gogorra izan da Irurtzango lagunendako.

Besarkada bat

### Heriotza-oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1.900 karaktere izan behar ditu, hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatziak bidali behar dira. Heriotzaren eta testu bidalketaren artean gutxienez aste bateko tartea egon behar du. Espazio antolaketa dela-eta GUAIXEK eskubidea du jasotako testuaren argitalpena hurrengo astera atzeratzeko. Hala balitz idatzia bidali duenari jakinaraziko zaio. Heriotza-oharra bidaltzen duenak testuarekin batera honakoak bidali behar ditu: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Idatziak helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## ESKELA



## Francisco Ruiz Molina



(Patxi Ruiz euskal preso politikoaren aita)

Amnistiaren bidetik  
garaipenera arte

## HERIOTZAK

- **Tiburcio Marin Mozo unanuarra**, otsailaren 11n Lakuntzan
- **Francisca Solis Senar**, otsailaren 11n Lizarragan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU  
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LEHIAKETAK

**GAZTEWOOD**  
Altsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazte-wood@gmail.com edo sare sozialetan gazte-wood profilean.

## OHARRAK

**Autobusa AHT-ren kontrako kontzentrazioa**  
joateko: Tren sozialaren eta Abidurra Handiko Trenaren kontrako kontzentrazioa egingen da Tafalla tren geltokiaren parean Otsailaren 16an, 17:00etan. Sakana Trenaren Alde taldeak hara joateko autobusa antolatuta du. Joan nahi duenak ohiko tokietan eman dezake izena. 15:00etan aterako da Altsasuko autobus


geltokitik eta herrietan geldialdiak egingen ditu.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzake programaren bidez euskara praktikatzera elkar-tzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. 600 482 024 telefonon edo AEKren Itsasi euskaltegia duzu informazio guztia.


[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## EGURALDIA ASTEBURUAN


## Ostirala, 15




## Larunbata, 16



## Igandea, 17



## Astelehena, 18



## ESKELA



## Tiburcio Marin Mozo

(2019ko otsailaren 11an hil zen, 101 urte zituela)

Negar egin dezakegu joan delako,  
edo bizi izan delako irri egin

Inmaren lagunak

Etxarri Aranatz

## OROIGARRIA



## Kruzi Lakuntza Mendinueta

II. urteurrena

Bere aldeko meza, igandean, otsailak 17,  
goizeko 11etan Arbizuko elizan izanen da.

Ahazten ez dena ez da inoiz hiltzen

Zure familia



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU**

Santa Cruz, 6

**ETXARRI ARANATZ**

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

## tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache



[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## SAKANAKO TOPAKETAK

## PARTIDUAK

IGANDEAN BENJAMINAK UHARTEN

10:00 Etxarri Aranatz 1 - Altsasua C

10:50 Etxarri Aranatz A - Altsasu B

11:40 Urdiaín - Altsasu A

12:30 Sutegi A - Aralar Mendi A

13:20 Aralar Mendi 1 - Sutegi 1

## Sakanako Futbol Topaketak:

## igandean benjaminak Uharten

Igandean Sakanako Futbol Topaketetan benjamin mailako 6. jardunaldiko partidak egonen dira jokoan Uharte Arakilen, 5 partida guztira. Bestetik, kimuen mailako 11. jardunaldiko partidak jokatzeak ziren igandean, baina asteburu bat atzeratuko dira, aste honetan Altsasun, Lakuntzan eta Etxarri ezin direlako partidak jokatu. Otsailaren 24an jokatuko da jardunaldi hori, Dantzalekun.

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, ibarreko futbol klubak laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbidertu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoei futbolekin arituz ongi pasatzea da asmoa, euren arteko harremana sustatzea.



## SASKIBALOA CBASK-ek San Ignacio hartuko du bihar Zelandin

Autonomia Arteko 2. mailan 16. jardunaldia jokatu zen asteburuan. Altsasuko CBASK saskibaloia San Ignacio Rioja taldearen kontra aritzekoa zen, baina bi taldeek partida atzeratzea erabaki zuten eta otsailaren 24an jokatuko dute, 17:00etan, Logroñon.

Autonomia Arteko 2. mailan Cenicero La Alcoholerak jarraitzen du lider (26 puntu). Partida bat gutxiagorekin, CBASK zortzigarrena da (18 puntu). Asteburuan 17. jardunaldia egongo da jokoan eta larunbatean CBASK-ek etxean jokatuko du, Zelandi kiroldegian, 18:00etan, sailkapenean laugarrena den Iruñeko San Ignacio taldearen kontra.

## Atzeratutako igeriketa proba bihar jokatuko da

**IGERIKETA** Bihar, larunbatean, 17:00etan, duela bi aste elurrarengatik bertan behera geratu zen NKJen Nafarroako Promesen Igeriketa Ligako kimuen mailako 4. jardunaldia jokatuko da Altsasuko Zelandi kiroldegietako igerilekuan

Altsasuko Zelandi kiroldegiko igerilekuak XXXII. Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Nafarroako Promesen Igeriketa Ligako kimuen mailako 4. jardunaldia hartu behar zuen duela bi aste, otsailaren 2an, baina elurrarengatik jardunaldia bertan behera uztea eta atzeratzea erabaki zuen Nafarroako Igeriketa Federazioak.

Sakanako Igeriketa Taldeak adierazi digutenez, bihar, otsailaren 16an, larunbatean, jokatuko da atzeratutako jardunaldi hori, 17:00etatik aurrera, Zelandi kiroldegian.

## Nafarroako 13 klubetako igerilariak

Honako klubetako igerilariak ari tuko dira bihar Zelandiko igerilekuan: Pamplona CN, Amaya CD, Tennis P., Arenas SDR. Campoamor C., Tafalla CN, Txantrea KKE, V. Aranguren, Ribera Media, Atalaya, Eskuna, Etxabakoitz eta Sakana Igeriketa Taldea.



Hamahiru klubetako igerilariak arituko dira bihar Altsasun. SAKANAKO IGERIKETA TALDEA

Honako probak osatu beharko dituzte: gizonetako 200m librean, emakumezkoak 200m librean, gizonetako 200m bularrean, emakumezkoak 200m bularrean, gizonetako 50m tximeletan, emakumezkoak 50m

tximeletan eta emakumezkoen erreleboak, 4x50m estiloak.

## Sakana Igeriketa Taldea

Sakana Igeriketa Taldekoek etxean jokatzeaz gain, antolaketan lanak egingo dituzte.

## Giro bikaina Ziordiko Futbol Torneoan

**FUTBOLA** Ziordia, Aralar Mendi, Irañeta eta Sutegi taldeetako neska-mutikoei hartu zuten parte

Igande arratsaldean futbolariz bete zen Ziordiko frontoia. Berriki frontoiko teilatua konpontzeko obrak egin behar dira, eta horregatik aurreratu zen Ziordiko Futbol Torneoan. Ziordia, Aralar Mendi, Irañeta eta Sutegi taldeen arteko partidak jokatuko ziren bertan, hasiera batean aurrebenjamin mailakoak, 5 eta 7 urte bitarteko neska-mutikoenak, eta, bestetik, benjamin mailakoak, 7 eta 9 urte arteko neska-mutikoenak.

Ziordiko frontoian sekulako giroa zela jokatu ziren partidak,



Partidak frontoian jokatu ziren. UTZITAKOA

## FUTBOL PREFERENTEA

## 19. JARDUNALDIKO EMAITZA

Beriaín - Etxarri Aranatz 4-2

## SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 37

12 Etxarri Aranatz 22

## PARTIDUA

LARUNBATEAN

16:30 Etxarri - Ilunberri (San Donato)

## Etxarri Beriaindik punturik gabe

Beriaín eta Etxarriren arteko partida oso lehiatua izan zen. Beriain aurreratu zen, baina Xabatek berdintzea lortu zuen. Beriaingo Otanok bi gol sartu zituen, eta Gentzak sartutako golari esker 3 eta 2 gerturatu zen Etxarri, baina Beriainek laugarren gola sartu zuen eta horrela despiditu zen partida.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 20. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagunak B - Lagun Artea 1-3

Aurrera - Altsasu 2-3

## SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagun Artea 51

4 Altsasu 34

## PARTIDUAK

LARUNBATEAN

16:30 Altsasu - Berriozar (Dantzaleku)

IGANDEAN

16:15 Lagun Artea - Aurrera (Itxasalde)

## Asteburu bikaina gure bi taldeendako

Lagun Artea liderrak eta Lagunak bigarrenak partida oso borrokatua eskaini zuten. Essobaik (2) eta Burilok sartutako golei esker, lidergoa sendotzea lortu zuten lakuntzarrek. Leitzatik ere 3 puntuko zaku ederrarekin bueltatu ziren altsasuarrak. Santa Agedako ajea ez zitzaizen gehiegi nabaritu eta partida lehiatua 2 eta 3 irabazi zuten gorriek.

## EMAKUM. ERREGIONALA

## SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 52

12 Altsasu 19

## HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

12:45 Altsasu - Amigo (Dantzaleku)

## Altsasuko neskek etxean ariko dira

Emakumezkoen erregional mailan asteburuan ez zen partidarik jokatu. Asteburuan 20. jardunaldia erabakiko da eta Altsasuko neskek sailkapenean 7.ak diren Amigo taldekoak hartuko dituzte igandean, 12:45ean, Dantzalekun.





Aurreko urteko aurkezpena.

**TXIRRINDULARITZA****Burunda taldearen aurkezpena, bihar**

Burunda Txirrindularitza Taldeak 2019 denboraldiko taldeen aurkezpena bihar egingen du, larunbatean, 12:00etan, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Ekitaldian eskoletako taldeak, kadete mailakoa eta juniorrena aurkeztuko dituzte. Lehenik eta behin talde argazkiak egingen dituzte kanpoan eta, ondoren, aurkezpen ekitaldia.

Bestalde, Aralar Txirrindularitza Taldeak martxoaren 10ean egingen du denboraldi berriko aurkezpena, goizeko 11:00etan, Sakana Kooperatibian. Izan ere, aurten babesle berria izanen du Aralar klubak, Sakana Kooperatiba, eta izen berria mustuko du, Sakana, eta jantzi eta maillot berriak.

# Cerezoren Nafarroako selekzioa, finaletara

**FUTBOLA** Emakumezkoen XIV. Selekzio Autonomikoen Arteko Futbol Txapelketako azken faserako sailkatu dira 15 urtez azpiko eta 17 urtez azpiko Nafarroako selekzioak. 17 urtez azpikoan Aroa Cerezo lakuntzarrak jokatzen du

Emakumezko futbolari nafarrak goi goian daude. Asteburuan XIV. Selekzio Autonomikoen Arteko Futbol Txapelketako 2. fasea jokatu zen eta Nafarroako bi emakumezkoen selekzioak, 15 urtez azpikoak eta 17 urtez azpikoak, txapelketako azken faserako sailkatzea lortu zuten, asteburuan jokatutako euren partidetan emaitza bikaina izan da gero. Lorpen historikoa izan da hau bi selekzio nafarrendako. 15 urtez azpiko selekzioko txapelketako azken fasea maiatzaren 29tik 31ra jokatuko da eta 17 urtez azpiko azken fasea, aldiz, apirilaren 5etik 7ra, oraindik erabaki ez den tokian.

**Mulierreko jokalaria**

Nafarroako 17 urtez azpiko emakumezkoen selekzioan Aroa Cerezo lakuntzarra dabil (2002-02-26). Cerezok Mulier taldean jokatzen du, defentsa postuan maila bikaina du eta, horren isla, Nafarroako selekzionatzai-



Aroa Cerezo, behean, ezkerretik hasita hirugarrena. NAFARROAKO FUTBOL FEDERAZIOA.

## AROA CEREZOK MULIERREN JOKATZEN DU, DEFENTSA DA ETA SELEKZIOKO JOKALARIA

leak selekzioan aritzeko deitu diola behin eta berriz.

Asteburuan jokatutako partidetan, Extremadurarekin bana berdindu zuten nafarrek, baina Cantabriari 0 eta 3 irabazi zioten eta, horregatik, azken faserako

sailkatu dira. Fase horretan Kataluniako, Andaluziako eta Madrilgo selekzioak izango dituzte aurkari.

15 urtez azpiko Nafarroako selekzioak 2 eta 0 irabazi zion Extremadurari eta 1 eta 2 hartu zuen mendean Cantabria. Kasu honetan ere, nafarrek Kataluniako, Andaluziako eta Madrilgo selekzioak izango dituzte arerio azken fasean.

Nafarroako 17 urtez azpiko selekzioa ondoko jokalariek osatzen dute: Ilargi Lopez, Saioa Larunbe, Elena Lizoain, Maria Mendaza, Nadia Armendariz, Sara Carrillo, Ana Urzainki, Maite Valero, Naroa Perez, Ana Andraiz, Carla Parrondo, Olaia Bribea, Oihane Begiristain, Nerea Nagore eta Aroa Cerezo.

**Jarraipen handia**

Nafarroako emakumezkoen selekzioek asteburuan jokatutako partidak zuzenean eskaini zituzten Nafarroako Futbol Federazioak, Youtuben duen katean, streaming bidez. Federaziotik adierazi dutenez, zuzenean eskainitako partidek 10.050 bisualizazio izan zituzten guztira: larunbateko jardunaldian 5.418 bisualizazio eta igandekoan 4.632 bisualizazio.

Nafarroako Futbol Federazioak Youtuben duen kanalean aipatu partidak ikus daitezke, ondoko loturan: <https://www.youtube.com/c/Federaci%C3%B3nNafarraF%C3%BAtbolFN>

## Etxeberria Rural Kutxan

**TXIRRINDULARITZA**

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak talde profesionala eta afizionatuen taldea aurkeztu zituen Madrilén. Afizionatuen taldean sakandar bakarra egonen da, Aralar txirrindularitza taldearekin kadete eta junior mailatan denboraldi bikainak egin eta gero, afizionatuetara salto egin duen Josu Etxeberria iturmendiarra.



TEAM CAJA RURAL SEGUROS RGA





Martija eta Altuna III.ak eta Artola eta Mariezkurrena II.ak Beotibarren jokatu duten partidak piztu du interesik handiena. ASPE

# Binakakoa: bero-bero dago txapelketa

**PILOTA** Bi jardunaldiren faltan, oraindik ez da zehaztu zein biko sailkatuko diren finalerdietarako. Hiru pilotari sakandarrek Binakakoan aurrera egiteko aukerak dituzte baina, horretarako, asteburuan jokoan dituzten partidak irabazi beharra dute

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxka despeditzeko 2 jardunaldiren faltan, oraindik asko dago erabakitzeke. Elezkano eta Rezustak 9 puntu dituzte eta Binakako finalerdietarako sailkatuta daude. Haien atzetik, 3 bikotek 7 puntu dituzte: Irribarria-Zabaletak, Artola-Mariez-kurrenak eta Olaizola II.a-Albisuk. Altuna III.a-Martijak 6 puntu dituzte, Ezkurdiak-Galarzak 6 puntu, Bengoetxea VI.a-Imazek 4 puntu eta Urrutikoetxea-Aretxabaletak 3 puntu. Hortaz, azkenera arte, badago zertaz gozatu.

Aste honetan Mikel Urrutikoetxeak txapelketara itzuliko dela azaldu du, ezker eskua baldintzetan duelako. Horrela, orain arte Urrutiren partez aritu den Victorrek txapelketatik kanpo geratu den Aimar Olaizolaren lekua hartuko du.

**Zabaleta, zortzigarrenaren zain**  
Gaur, ostiralean, Larraintzarren jokatu dute Irribarria-Zaba-

letak eta Urrutikoetxea-Aretxabaletak (22:00etan, ETB1). Aurreko astean Joseba Ezkurdiaren eta Ladis Galarzaren kontra 22 eta 21 galdu eta gero, Irribarriak eta Zabaletak irabazi beharra dute, euren zortzigarren puntua lortu eta Binakako finalerdietarako sailkatzeko. Partida ikusgarrian, nahiz eta 15 eta 19 gal-tzen joan, Joseba Ezkurdiak ez zuen partida galdutzat eman, eta bikotearen ardura hartuz, esfortzu handiz, konpromiso itzelarekin, eta izugarrizko lana eginez, partidari buelta ematea lortu zuen eta, azkenean, 22 eta 21 irabaztea lortu zuten arbi-zuarrak eta Baraibarkoak.

Gaurko partidari begira, Urrutikoetxeak eta Aretxabaletak ez dute ezer jokoan, hiru puntu baitituzte, baina itxura ona eman nahi dute eta partida irabazi, bide batez Irribarria-Zabaleta-ekin batera puntura berdinduta dauden Artola-Mariez-kurrenari eta Victor-Albisuri laguntzeko. Lehia bizia espero da.

## Ezkurdia, bizirik

Joseba Ezkurdiak eta Ladis Galarzak eta Bengoetxea VI.ak eta Imazek bihar jokatu dute 13. jardunaldiko partida, Labrit pilotalekuan (17:45, ETB1). Ezkurdiak eta Galarzak airea hartu dute azkeneko bi partidak irabazi eta gero, eta 5 punturekin, txapelketan aukerak izaten jarraitzeko derrigorrezkoa dute irabaztea. Bengoetxea VI.ak eta Imazek, 4 punturekin, ez dute Binakako Txapelketan aurrera egiteko aukerarik, baina duten onena emango dute txapelketa ahalik eta hobekien bukatzeko. Beraz, bihar, larunbatean, partida gogorra aurreikusten da. Leporaino beteko den Labriten giro bikaina espero da.

## EZKURDIAK ETA MARTIAK IKUSGARRI JOKATU ZUTEN AURREKO ASTEBURUAN

### Martija dominatzea, "gakoa"

Igandean Altuna III.a-Martijak eta Artola-Mariez-kurrena II.ak Tolosan jokatu duten partidarako (17:00, ETB1) ikusmina handia da. Lehia zuzeneko partida da hau, Altuna III.a eta Martijak 6 puntu eta Artolak eta Mariezkurrenak 7 puntu dituztelako. Jokoa dagoen puntua, beraz, urrezkoa izango da sailkapena aldatuko duelako.

Altuna III.a eta Martija aurreko larunbatean Elezkano eta Rezusta 8 tantotan uztekin datoz, sekulako partida jokatu eta gero. Txapelketan behetik gora egin dute. Aurreko urtean ere bikoa osatu zuten Altunak eta Martijak eta erraz sailkatu ziren Binakako finalerdietarako. Aurten, ordez, ez dira horren fin ibili. Martijaren esanetan "konfiantza falta" izan dute. "Kosta egin zaigu partidak ateratzea, baina egoera horretatik ateratzek konfiantza eman digu. Oraindik zail dago sailkatzea, baina boladarik onenean gaude. Goraka goaz, eta finalerdietara sartzen bagara, sasoiko iritsiko gara" bota du abisua Etxeberriko atzelariak. Azken partidetan, ikusgarri dabil Martija, eta arerioak horren jakitun dira. Mariezkurrenak material aukeraketan esan zuenez "gakoa Martija dominatzean egongo da".

Bestalde, larunbatean Sorian jokatu duten Elezkano-Rezustak eta Albisuk astearte goizean aukeratu zituzten pilotak. Victorrek jokatu du Albisurekin, Olaizola ordezkatuz. Elezkano eta Rezusta finalerdietarako sailkatuta daude eta Victorrek eta Albisuk, aldiz, irabazi eta 8. puntua lortu nahi dute, finalerdietara sailkatzeko bidean ongi kokatzeko. Beraz, asko egonen da jokoan ere larunbatean Sorian jokatu den partidaren.

### Joanes Bakaikoaren buelta

Baiko Pilotako Joanes Bakaikoa lesionatua egon da, ilbeltzean ezker eskuko behatz batean haustura izan zuelako. Horregatik ez du parte hartu Promozio Binakakoan. Baina pilotari etxarriarra osatu egin da eta asteburu honetan itzuliko da kantxetara. Hain zuzen ere, larunbatean 17:45ean Sorian jokatu den jaialdia zabaltzen duen partidaren ariko da Bakaikoa, Iturriagarekin batera, Alberdi eta Etchegoin pilotarien kontra aritzeko.



Aurreko urteko partaideak. ARTXIBOA

## Altsasuko V. Pilota Goxua Txapelketa hastear

**PILOTA** Altsasuko Gazte Asanbladak antolatutako txapelketa igandean hasiko da

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta, aurten Altsasuko Bikotekako V. Pilota Goxua Txapelketa jokatu da. Urtetik urtera arrakasta handiagoa du txapelketak eta aurten 5. edizioa jokatu da hainbat mailatan: 1. maila, 2. maila, emakumezkoena eta aurten ere Banakako mailan. Banaka izena ematen dutenek Binakakoan ere izena emateko aukera izan dute.

Izena emateko azken eguna asteartea izan zen. Txapelketa asteburu honetan hasiko da eta bertan aritzeko gogo handiz daude izena eman duten pilotariak. Izan ere, pilotarien eta partidak ikustera hurbiltzen diren zaleen artean giro ederra sortzen da. Txapelketa orain hasi eta maiatzaren despedituko da. Finalak Altsasuko Alde Zaharreko festetan jokatu dira, maiatzaren 4an.

Aurreko urteko Altsasuko Pilota Goxua Txapelketan 35 bikotek hartu zuten parte: 1. eta 2. mailan zortzina bikotek, 3. mailan 14 bikotek eta ia lehenean antolatutako emakumezkoen mailan 5 bikotek. Final handietan, 3. mailan Ieregitarrek irabazi zuten, 2. mailan Gelbentzutarrek, nesken mailan Igoak eta Alonsok eta 1. mailan Lopez de Zubiriak eta Garziandiak.



## ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak Santa Coloma du aurkari

Osasuna Magna Xotak argi utzi du ez duela punturik ihes egiten utzi nahi. Ostiralean Galiziko Ferroleko O Parrulo taldea hartu zuen Anaitasunan, eta pazientzia handia behar izan zuten Imanol Arregiren mutilek, partida apurtzea kosta baitzitzaien. Azkenean, Alex Llamasek atea zulatzea lortu zuen eta aldeko 1 eta 0-rekin joan ziren atsedendira jokalariei berdeak. Bigarren zatian gol saiakerak bata bestearen atzetik sortu zituzten, eta Bynhok (2), Araçak, Rafa Usinek eta Eric Martelek sartutako golei esker, 6 eta 1 gailendu zen Osasuna Magna.

Imanol Arregik aipatu zuen kosta egin zitzaizela O Parrulo gailentzea "oso ongi defendatzen duen arerioa delako, oso ordenatua". "Bigarren zatian erritmoa azkartu dugu eta hobeto aritu gara. Irabaztea merezi izan dugu; bide onean jarraitzea ahalbiderratzen digun garaipena da" gaineratu zuen Arregik.

Barça Lassa da liderra (51 puntu) eta Osasuna Magna laugarrena da (48 puntu), Movistar Inter hirugarrenarekin puntutara berdinduta. Bihar, larunbatean, sailkapenean 11.a den Santa Colomaren kontra jokatuko dute berdeek Katalunian, 18:00etan. Ea irabazi eta hirugarren postua eskuratzen duten.



Irurtzun pilota klubekoak, aurreko urteko Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako finalean. ARTXIBOA

# Irurtzun vs Iurreta, EHko Kluben Arteko Txapelketan

**PILOTA** Euskal Herriko Kluben Arteko V. Txapelketa Nazionaleko azken final laurdenetan Irurtzun klubak Iurreta izango du aurkari, bihar, larunbatean, 19:30ean, Tolosako Beotibarren

Abenduaren hasieran abiatu zen Pilotabizi Pelotazaleen Elkartek antolatutako Euskal Herriko Kluben Arteko V. Txapelketa Nazionala. Aurten inoiz baino parte-hartze handiagoa izan du txapelketak, Euskal Herriko 24 klub ari baitira, tartean Etxarri Aranazko Gure Pilota eta Irurtzun taldea, aurreko urteko txapeladunordea. Hasieran

aurre fasea edo kanporaketa jokatu zen, eta txapelketan debutatu zuen Gure Pilotak Amurrio izan zuen aurkari. Amurrio gailendu zen eta Gure Pilota bidean geratu zen.

Aurreko urtean Irurtzun txapeladunordea izan zenez, Irurtzun taldea txapelketako final laurdenetan sartuko da lehian. Txapelketako azken final-laurdenean,

Irurtzunek edizio honetan sorpresa eman duen Iurreta izango du aurkari. Hasiera batean final laurdena igandean jokatzea zen, baina partidak larunbatera, otsailaren 16ra aurreratu dira, 19:30ean. Lehia oso gogorra espero da, aurreko urteko txapeladunordea baita Irurtzun, puntako kluba, eta aurten ezusteko handienetakoa eman duen tal-

deetako bat izan delako Iurreta. Hortaz, ikusmin handia sortu du norgehiagokak, kontuan hartuta jokoan dagoen kanporaketa oso garrantzitsua dela, irabazleak finalerdietara pasatzeko txartela lortuko baitu, otsailaren 24an Ultzamako Buruzgain klubaren kontra aritzeko.

## Beste final laurdenak

Beste final laurdenetan, Buruzgainek Paz de Ziganda hartu zuen mendean, jokoan zeuden hiru partidak irabazita. Hernanik sorpresa eman zuen, Erreka bidean utzi eta gero (2 eta 1). Eta gauza berdina Oberenak, Zazpi Iturriri irabazita egin baitu aurrera, jokoan zeuden hiru partidetatik bi irabazi eta Zazpi Iturriko Peru Labaka leSIONATU zenean, hirugarrena bertan behera geratu eta gero

## EH-ko Kluben Artekoa

Larunbatean, 19:30ean, Tolosako Beotibarren: Irurtzun vs Iurreta

### Irurtzun vs Iurreta

- **Lau t'erdian:** Ongay (Irurtzun) / Zezeaga (Iurreta)
- **Banaka** Ollo (Irurtzun) / Otadui (Iurreta)
- **Binaka** Olazabal-Bergera (Irurtzun) / Bereikua-Diez (Iurreta)

## Xotako taldeen topaketa

**ARETO FUTBOLA** Aurreko ostegunean Irurtzongo Xota klubeko talde guztiak Irurtzongo kiroldegian bildu ziren, 150 jokalariei eta 25 teknikari ziren guztira, Osasuna Magnako jokalariei eta teknikariak buru zirela. Xota kirol kluba duela 41 urte jaio zen Irurtzunen. Tatono Arregi presidenteak, Lacturaleko Juanma Garrok eta Imanol Arregi entrenatzaileak hartu zuten hitza.







Juanito eta Migel Angel Erdozia, Sakanako Aizkora Eskolako gaztetxo bati laguntzen, Sakanako herri kirol egunean. ARTXIBOA

## Aizkorian trebatu nahi? Zatoz Sakanako eskolara!

**AIZKORA** Sakanako Aizkora Eskola martxoaren 8an hasi eta maiatzaren 10era bitartean egonen da martxan, Erdoziatarren Etxarri Aranazko bordan. Izena ematea martxoaren 1era arte dago zabalik, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan

Sakanako Mankomunitatearen Kirol Zerbitzuko helburuetako bat herri kirolak sustatzea da, eta ibilbide horretan aurten ere Sakanako Aizkora Eskola antolatuko du. Juanito Erdozia, Juanjo Erdozia eta Migel Angel Erdozia aizkolari etxarriarrek gidatuko dute eskola. Aizkorak sekretu gutxi ditu erdoziatarrendako, eta, beraz, eurekin trebatzeko aukera ezin hobea da. Aizkolaritzan trebatu nahi dutenek, beraz, primerako aukera dute Sakanako Aizkora Eskolarekin.

10 urtetik 20 urtera bitarteko gaztetxoek eman dezakete izena Sakanako Aizkora Eskolan, eta tokia badago, helduagoek ere. Klaseak Etxarri Aranatzan izanen dira, erdoziatarren bordan, martxoaren 8tik maiatzaren 10era bitartean, asteartetan eta ostiralean, 19:30etik 20:30era.

**Bitartekoak jarri eta harrobia sortu**

Sakanako Aizkora Eskolaren helburua, aizkorian hasi edo trebatu nahi dutenei kirol honetan murgiltzeko baliabideak ematea da. Izan ere, sarritan

herri kirolean aritzea nahiko genuke baina ez dugu eskura bertan aritzeko materialik eta baliabiderik. Gabezia horiei irtenbidea emateko sortu zuen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, bere garaian, Sakanako Aizkora Eskola. Horrela, aizkora gustuko dutenei aizkorian hasteko beharrezkoak diren baliabideak –aizkorak, entrenatzeko tokia, enborrak eta beste– ematen zaizkie. Hasiarik arrakasta handia izan du eta urtero bertan aritzeko tokiak betetzen dira. Bestalde, Sakanako Aizkora Eskolarekin, aizkora bulkatzeaz gain, Sakanan aizkolari harrobi on bat osatu nahi da. Askok dira bertatik ateratzen diren aizkolariak, egun txapelketetan aritzen direnak.

**Izena ematea zabalik, martxoaren 1a baino lehen**  
Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan eman behar da izena, martxoaren 1a baino lehen (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus). Prezioa: 55 euro. Adina: 10-20 urte bitarteko neska-mutilak. Tokia badago, helduagoak ere.

## Sakanako Atletismo Kopako sariak, banatuta

**ATLETISMOA** Sakanako Mankomunitateak ostiralean banatu zituen 2018ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak. Erkuden San Martin eta Juan Carlos Gomez izan ziren txapeldunak. Aurten ere Kopa antolatzeko asmoa du Mankomunitateak

Ostiralean 2018ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariko sari ematea hartu zuen Etxarri Aranazko Lasa Kirolak dendak. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du Sakanako Atletismo Kopa, Lasa Kirolak babesle nagusiaren laguntzarekin eta Sakanako atletismo taldeen laguntzarekin, ibarrean atletismoa eta herri lasterketak sustatzeko eta aipatu probetan korrikalari sakandarren parte-hartzea sustatzeko.

2018an Sakanan antolatutako 5 probek puntuatzen zuten Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako: Ziordiko Krosak (maiatzak 19), Bakaiku-Itur-



Sakanako Kopan saritutakoak, Mank-eko eta Lasa Kirolakeko ordezkariekin.

mendiko XV. Aitzkozar Herri Krosak (maiatzak 26), Ergoienako XV. Birak (irailak 22), Olaztin jokaturako XVIII. Sakanako Herri Lasterketak (azaroak 3) eta Zubeztia elkartek Altsasun antolatutako 38. Oinezko Lasterketa-35. Barricarte Memorialak (abenduak 8). Sakanako 10 korrikalari hoberenek puntuatu zuten, emakumezkoek eta gizonezkoek, eta bost proba hauetatik gutxienez lauretan parte hartu behar zuten.

Emakumezkoetan Erkuden San Martin Gonzalez etxarriarrek irabazi zuen Sakanako Atletismo Kopa, Izaskun Beunza olaztiararen eta Maite Zabaleta etxarriararen aurretik. Gizonezkoetan Juan Carlos Gomez Fernandez izan zen txapelduna, Jose Javier Maiza Begiristainen eta Francisco Javier Gomez Fernandez aurretik. Txapel-dunek 80 euro jaso zuten Lasa Kirolakeko kirol materialean, bigarrenak 60 euro eta hirugarrenak 40 euro. Bost probetan parte hartu zuten korrikalarien artean Lizarragako Bentan egonaldia zozketatu zen, eta Santi Agirrek lortu zuen saria.

### MENDI LASTERKETAK Katarain 10.a Sierra Nevadako proban

Sierra Nevadako eski estazioak III. Espainiako Snowrunning Txapelketa ikusgarria hartu zuen aurreko asteburuan, aldi berean Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioko (FEDME) Txapelketa zena.

Lasterketak 12,7 kilometroko luzera eta 920 metroko desnibel positiboa zuen. Hotza zen nagusi, -8ºko tenperaturarekin estazioko goiko partean, 2.500 metro baino gehiagoko altueran. Elur gaineke proban 800 mendi korrikalari inguruk hartu zuten irteera; horietatik, 698 korrikalarik lortu zuten helmugara iristea.

Jacob Gutierrez izan zen txapelduna (1:05:21), merezimendu handiz. Aipatzekoa da Euskal Herriko Mendi Lasterkarien selekzioko Beñat Katarain la-kuntzarra ikusgarri aritu zela eta 10. postuan gurutzatu zuela helmuga (1:14:19). Nafarroako Mendi Lasterketen selekzioko Thibaut Bertrand 13.a sailkatu zen (1:15:47).





2018ko Literatur Lehiaketaren sari banaketaren talde argazkia. ARTXIBOA

## Literaturaren bidezko elkartasun adierazpenak

Altsasukoak Aske literatur lehiaketaren sari banaketa izanen da gaur, otsailak 15, 18:00etan, lortian

### ALTSASU

"Elkartasun handiko emanaldia" egingen dute gaur, otsailak 15, ostirala, Iortia kultur gunean, 18:00etan. Altsasukoak Aske herri plataformak antolatutako bigarren literatur lehiaketaren sariak banatuko dituzte, eta sari banaketa ez ezik, literatura-emanaldia ere izanen da. Lanak Euskal Herri osotik iritsi direla jakinarazi du plataformak. Emanaldia Iortia kultur gunean izanen da, 18:00etan. Gonbidapenak oraindik har daitezke kultur gunearen leihatilan.

Dani Martirena kazetari eta idazleak aurkeztuko du emanaldia, eta saria emateaz Harkaitz Cano eta Uxue Alberdi idazleak arduratuko dira, Altsasu Gurasoak-eko aita-amekin eta Altsasukoak Aske plataformako ki-deekin batera. Ta Lauen musika laukoteak emanaldiari musika jarriko dio. Gainera, saritutako

lanak entzuteko aukera egonen da, izan ere, idazleek jendaurrean irakurriko dituzte.

Euskal Herri osotik iritsi dira "merezi izan duten" testuak, plataformak adierazi duenez. Literatura lehiaketan narrazioak, olerkiak eta mikro-ipuina sailak zeuden, bi kategoria zeuden, 18 urte beharokoak eta goikoak; eta euskaraz eta gaztelaniaz.

### Gazteekin elkartasuna

Altsasukoak Aske bigarren literatur lehiaketaren sari emate ekitaldia Adur, Jokin eta Oihan espetxeratu zituztela 824 egun eta Iñaki, Jonan, Julen eta Aratz giltzapetu zituztela 255 egun betetzen direnean egingen da. Elkartasuna beste modu batez erakusteko modua izan da literatura lehiaketa. Hortaz, sari banaketa ere elkartasun emanaldia izanen da.

den bitartean, ikusleek zerbait jan eta edan dezakete mahaietan eserita edota barran. Sarrera doan da, baina sartzeko gonbidapena behar da. Antzezlanaren ondoren artistak mahaieetatik pasatzen dira txano batekin diru eske.

Tarima Beltzaren *Madres y Pasotas* antzezlanak bere semeagatik dena uzten duen emakume baten istorioa kontatzen du. Komedia bat da, Dario Fo antzerkigilearen *La madre pasota* baka-rrizketaren adaptazioa.

## Tarima Beltza antzerki taldea Mutiloabeitin

*Madres y Pasotas* antzezlanaren Altsasun emanaldi berezian berrestreinatua ondoren, Tarima Beltza antzerki taldea bihar, otsailaren 16, 21:00etan, El bardo escaldao aretoan egonen da, Mutiloabeitin. El bardo escaldao aretoa kultur arloan mugitzen den jendea sortu zuen, eta antzoki eta tabernaren arteko areto bat da. Hortaz, emanaldia egingen

# Hildakoa oso bizirik dagoelako

El Muerto Vivo musika taldea sortu du Iñigo Muñoak, Pello Reparazekin eta Paxka Etxepararekin batera. Estatutik diskoa aurkeztu ondoren, kontzertua eskainiko du bihar larunbata, 21:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean

### ALTSASU - ETXARRI ARANATZ

"Hasteko garai bazen". Iñigo Muñoak El Muerto Vivo proiektua martxan jarri zuen iazko uda hasieran. Hala ere, bi urte pasa da proiektua zehazten. Pello Reparaz musikariarekin eta Paxkal Etxepare produktorearekin sortu du proiektua, "kasualitatez". Izan ere, Muñoa egondako beste taldetako diskoak jaso zituen Reparazek, eta gustatu zitzaizkion. Hortaz, elkarrekin proiektua egitea proposatu zion. Azaroan taldearen homonimoa den diskoa kalera-  
tu zuen, eta orain aurkezpen bira egin du. Lehenengo kontzertua Sakanan egingen du, bihar, larunbata, Etxarri Aranazko kultur etxean. 21:00etan izanen da emanaldia, baina 19:30etik ateak irekiko dituzte.

*Noches de verano* abestiarekin eta bideokliparekin aurkeztu zuen taldea Iñigo Muñoak. Lizarragabengoan grabatu zuten bideoa. Horren ondoren, hamar abestiko diskoa etorri zen. Azken asteetan promozio bira egin du estatutik: Oviedon hasi ziren, Donostiatik pasa ziren eta handik hegoaldera joan ziren; Valentzian, Alicanten, Sevillan eta Granadan egon ziren. "Kilometro asko egin ditugu, baina ongi". Akustikoan egin dute aurkezpena, Jorgito taldeko gitarra jolea lagun izan dutela. Biher Etxarri Aranatzaren egingen duten kontzertua, aldiz, talde osoa, laurak, batera ariko diren lehenengo kontzertua izanen da, eta "gogo handiak" ditu Muñoak.

### Taldearen identitatea

Runba da El Muerto Vivo taldearen oinarrian dagoen musika estiloa. Muñoaren musikaren bereizgarrietako bat da. Izan ere, estilo horretan sentitzen da eroso. Hala ere, ildo "betikoa" den arren, beste musikari batzuekin jotzen duenez, taldearen estiloa "desberdina" dela dio



El Muerto Vivo taldea. GAIZKA PEÑAFIEL

## RUNBA DAGO MUSIKA TALDEAREN OINARRIAN, BAINA SOINU PROPIOA LORTU DU

Muñoak. Gainera, ahotsa ere aldatu zaiola azaldu du.

Lehenengo diskoak hamar abesti ditu, Muñoak sortuak. Hala ere, musikariak azaldu duenez, Pello Reparazaren laguntza ere izan du: "abesti batzuk bion arten egin ditugu". Abestiak "denetarikoa" dira: egunerokotasunean gertatzen diren gauzak, maitasuna... Geldoagoak eta mugituagoak daude ere.

Estatutik egindako bira "oso ondo" joan dela esan du Muñoak. "Proiektua berria da, eta zerbait berria egiten duzunean ez dakizu zer aurkituko duzun; baina oso ondo". Runba oinarri izanda, Andaluzian musika estilo horrekin ohitura handiagoa dutenez, "oso gustura" aritu dira. Hala ere, bira osoan egindako emanaldietan jendea-ri gustatu zaiola esan du: "eta gu pozik".

Lehenengo aldia zen Muñoak horrelako bira bat egiten zuela, hau da, estatutik barrena bere musika aurkezten ibiltzen zela, izan ere, aurreko taldeetan "hemendik" egin izan ditu, gertu. Esperientzia "oso ona" izan da Muñoarendako: "ez zaitu inork ezagutzen, eta zure musika entzuten badute da musika hori benetan gustatu zaiolako, ez ezaguna delako".

### Lehenengo kontzertua

Bira egin ondoren, kontzertuan ariko da, beraz, El Muerto Vivo taldea lehenengo aldiz Etxarri Aranazko kultur etxean. Dantza egiteko aukera izanen dela esan du Muñoak: "bestela gure lana gaizki egiten ari gara". Diskoak bezala, kontzertuan abesti lasaigoak eta mugituagoak egonen direla aurreratu du. Etxarri Aranatzaren kontzertua egiteko eman dieten erraztasuna eskertu du, eta bertan jo duenean "oso ondo" aterala dela esan du.

Etxarri Aranazko kontzertua, aldiz, hasiera baino ez da. Datak oraindik ez dituzten arren, hainbat kontzertu emanen dituztela aurreratu du Muñoak.

# Hizkuntzalaritza ikerketetan erreferentea

'Fontes Linguae Vasconum' aldizkari zientifikoak 50 urte betetzen ditu aurten. Jose Mari Satrustegi arruazuarrak sortu zuen 1969an. Urteurrenerako hainbat ekimen antolatu dituzte, Ekaitz Santazilia zuzendariak Belexe irratan (FM 107,3) azaldu duenez

ARRUAZU - SAKANA

1950ko hamarkadaren bigarren erdialdean Nafarroako Diputazioak euskararen aldeko saila sortu zuen eta, horren barruan, hainbat ekimen egin zituen. Bestek beste, bertsolaritza bultzatu zuen eta haur euskaldunei azterketak egiten zieten. 1969an euskararen inguruan ikerketa zientifikoak argitaratzeko aldizkari zientifiko bat sortu zuten: *Fontes Linguae Vasconum*. Jose Mari Satrustegi euskaltzain arruazuarrak aldizkariaren sorruntzan parte hartu zuen, Ekaitz Santazilia filologoa eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren zuzendariak azaldu duen bezala.



E. Santazilia, zuzendaria; M. Arregi, Euskarabidea; D. Lopez, Principe de Viana. NAF. GOB.

Ekaitz Santazilia filologoa da eta "euskararen eta euskal ikasketen inguruko aldizkari zientifikoaren" zuzendaria da. Santazilia kontatu duenez, Jose Mari Satrustegik Jose Esteban Uranga Principe de Vianako zuzendariaren bisita izan zuen uztailaren 7 batean, San Fermin egunean, Urdiaingo apaiza zela. "Etnografiari buruz egiten ari ziren ikerketak nola publikatu pentsatzen ari ziren. Eta orduan etnografia aldizkari bat behar zela ondorioztatu zuten. Zer egin, nola eta euskarak zer leku izanen zuen erabaki behar zuten ere". Horrela sortu zen *Fontes Linguae Vasconum*. "Urangak bazuen kezka euskararen inguruan sortutako lanekin aski izanen zen aldizkaria betetzeko, eta Satrustegik *Estudia Documenta* deitzea proposatu zuen".

1969an sortu, eta 2019an, beraz, 50 urte beteko ditu *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari zientifikoak. Mende erdia pasa bada ere, aldizkariaren helburuak "berberak" direla esan du Santazilia: euskarari buruzko ikerketa zientifikoak argitaratzea eta euskal testu zaharrak ezagutzera emate

tea. Hala ere, euskal filologia aldatu den bezala aldizkaria ere aldatu dela esan du Santazilia. Unibertsitate munduko ikertzaileek publikatzen dute, gehien bat, argitalpenean.

## Urteurrena

Euskal hizkuntzalaritzan erreferentziatzeko aldizkari bilakatu da. Nazioartean ezagutzen dutela esan du argitalpenaren zuzendariak, eta hizkuntzalaritzaren munduan oso ezaguna dela azaldu du. Urteurrenari begira, baina, "beste publikoa erakarri nahi dugu". Horretarako, aldizkari zientifikoaren 50. urteurrena baliatu nahi dute. Hortaz, urteurrena ospatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte. Alde batetik, Nazioarteko Jardunaldia antolatu dute martxoaren 6an eta 7an, Hizkuntzalaritza eta euskal filologiaren inguruko hainbat hitzaldi eta mintegi egingen dira. Gainera, euskararen historiaren inguruko erakusketak antolatu dute ere Nafarroako Artxibo Orokorrean: *Paperezko altxorak*. Erakusketa gaur mus-tuko dute, Nafarroako Artxiboan.

**Osorik:** [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Loco Desatino antzezlan gaur, Irurtzunen

Irurtzungo kultur etxean *Loco Desatino* antzezlan izanen da gaur, otsailaren 15, ostirala, 21:00etan. Producciones Maestras antzerki konpainiak denboran bidaia egitea proposatzen du. Ana Caro Mallen antzerkigilearen garaletara bidaiatzea da, hain zuzen, *Loco Desatino* antzezlanarekin egiten dutena. XVII. mendean bizi izan zen Caro, barrokoan, eta antzezlanean komedia baten idazketa prozesua kontatzen da. Komedia bat sortzea barregarria baita. Gaur, otsailaren 15, ostirala, 21:00etan izanen da emanaldia, Irurtzungo kultur etxean.

*Valor, agravio y mujer* liburua idazten ari da Ana Caro Mallen, bere logelan. Bi jardunaldi idatzi ditu, eta hirugarrena idatztera doa. Baina ezin du. On Juan Kordobakoa logelan sartu da, eta ez dio aurrera egiten uzten. Caro haserretzen da, frustratzen da, blokeatzen da... Azkenean, zorrozatasuna plaza-ratuko du.

## Magia surrealista Olaztin, 'Mr. Kebab' ikuskizunean

Umorea, surrealismoa, hitz jokoak eta publikoarekin harremana eskaintzen du *Mr. Kebab* Juan Estrander artista-aren ikuskizunak. Turkiako mago baten paperean sartzen da umore absurdoa eragiteko. Gaur, otsailak 15, 22:30ean, izanen da emanaldia, Olaztikoko kultur etxean.

Magoaren gertaera batek pizten du dena. Publikoarekin empatia lortzen du, gainera, modu elegante eta argitsuan. Soiltasuna nabarmentzen da magia ikuskizunean. Hala ere, ez da magia ikuskizun soil bat. Izan ere, dadaismoaren barruan murgiltzen du publikoa, hau da, denaren kontra egotearen ideia: magiaren kontra, publikoaren kontra...

Eta, hemendik aurrera, absurdoa da nagusi. Zorakeria barregarri bezala deskribatzen dute kritikoek, eta, bukaeran, artistak agertokia uzten du publikoari "hor konpon!" oihuka-tu ondoren.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO (IUNE@GNUSOCIAL.NET)

## Guaixeren mastodonte urratsa



Guaixek zilarrezko ezteiak ospatuko dituen 2019 urte honetan, web gune eder baten aurkezpenarekin batera, software askean egina eta eduki askeekin, urrats bat eman du: Mastodonen kontu bat sortzea. Ilbeltzaren 25eko Ezkaatzan aurkeztu zuten pausu hau, komunikazio plan berriarekin batera.

Mastodon.eus instantzia euskaldunaren bitartez eman du lehenengo urratsa Guaixek sare askeetan, fedibertsotan (unibertso federatuan) bere lekua hartuz eta *toot* eginez.

Sare sozial aske hauen berezitasuna da ez dutela anai handi bezala jokatzeko duen inongo enpresaren beharrik funtzionatzeko. Edozeinek sortu dezake bere etxean instantzia bat -jakintza tekniko batzuekin, noski-, baina honek lan eta zerbitzarien beharra duenez, normalean, komunitatean sortzen dira, mastodon.eus adibidez.

Gainera, sare sozial hauek ez dira baztertzailak. Beste edozein sare sozial askerekin komunikatu zaitezke. Nik adibidez, euskal komunitatearekin kontaktua egiten dut, orain dela urte asko

GNU social sare askean dudana Gnosocial.net kontuaren bitartez.

Hizkuntza gutxituen erabilpena ere garrantzitsua da sare hauetan, multinazional basatien esku dauden sareek ez baitute *mainstream* diren hizkuntza hauen garrantzia ikusten. Baina komunitateak sortzen dituen proiektuetan, hizkuntza hauen erabilpena bermatzea izaten da oinarrietako bat. Sarean ere euskararen presentzia handitze aldera.

Irakurle guztiei sare hauetara elkartzeko gonbidapena luzatu nahi dizuet hemendik, proiektu aske, ez kontrolatzaileak eta euskaldunak bultzatzeko garaia iritsi delako.

Guaixe, ongi etorri fedibertsora!





Saats Karasatorre Tuterako final-laurdenean. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Hurrengo faserako txartela lortu du Saats Karasatorrek

Igandean, otsailaren 17an, Eneko Lazkoz etxarriarraren mustutzea izanen da, Lizarrako final-laurdenean

### ETXARRI ARANATZ

Otsailaren 9an, larunbatean, hasi zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa Tuteran eta lehenengo final-laurden horretan lortu zuen Saats Karasatorre bertsolari etxarriarrak Atarrabiako finalaurrekorako zuzeneko txartela. Asteburu honetan Eneko Lazkoz etxarriarraren txanda izanen da, izan ere, igandean, otsailaren 17an, Lizarran, mustuko da aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketan.

Tuteran eta Urdazubin jokatu ziren Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehengo bi final-laurdenak, larunbatean eta igandean, hurrenez hurren. Larunbatean Karasatorre nagusitu zen, eta, bere atzetik, Alazne Untxalo (249), Aimar Karrika (247), Eneko Fernandez (241), Joana Ziganda (240) eta Mikel Lasarte (233) sailkatu ziren. Tuterako irabazlea izateagatik, Atarrabian martxoaren 3an jokatu den finalaurrekoan ariko da Karasatorre. "Gustura" aritu zela esan du etxarriarrak Beleixe irratian egindako adierazpenetan (FM 107,3). Saio horretan Maider Ansa etxarriarra gai-jartzaile lanetan ariko da.

Urdazubin, aldiz, azken Nafarroako txapelduna nagusitu zen; Julio Soto bertsolariak irabazi zuen bigarren final-laurdena, 265 punturekin. Iker Gorosterrazu (246), Saioa Alkaiza (245,5), Iban Garro (240,5), Irati Majuelo (234) eta Sahats Aleman (230,5) bere atzetik gelditu ziren. Sotok

Etxarri Aranatzaren martxoaren 9an jokatu den finalaurrekorako txartela lortu zuen. Final-laurden saioetan epaileen taldean Joseba Beltza etxarriarra dago.

24 bertsolari hasi ziren Nafarroako Bertsolari Txapelketan, eta 18 pasako dira hurrengo fasera, finalaurrekoetara. Hortaz, Karasatorrek eta Sotok izan ezik, lehenengo bi saioetako irabazleak izateagatik finalaurrekoetarako zuzeneko txartela lortu dute, puntuatu duten beste bertsolariek asteburuan jokatu diren final-laurdenetako puntuazioen zain egon beharko dute hurrengo fasera pasatzen duten jakiteko.

### Lazkozen unea

Bihar, otsailaren 16, Iruritako Gizarte Bilgunean jokatu da hirugarren final-laurdena. Igandean, otsailaren 17an, Eneko Lazkoz etxarriarraren mustutzea izanen da aurtengo Nafarroako Bertsolari txapelketan. Lizarrako Gazteriaren etxean izanen da. Bi saioak 17:30ean izanen dira, eta sarrrerak salgai daude.

Eneko Lazkoz finalista izan zen 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Iruritako eta Lizarrako saioetako irabazleak zuzenean pasako dira martxoaren 10ean jokatu den Lesakako finalaurrekorara. Julen Zelaia, Josu Sanjurjo, Amaia Elizagoien, Sarai Robles eta Diago Riaño ariko dira etxarriarrarekin. Gai-jartzailea Ander Aranburu izanen da.

# Barnetik ateratako pintura lortian ikusgai

Alvaro Mundiñano margolari etxarriarraren erakusketa ikusgai dago joan den astetik. Altsasuko lortia kultur gunean otsailaren 24ra arte ikusgai izanen da, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta igandeetan 16:00etatik 20:30era

### Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Noainen, Lakuntzan, Japonian, Kolonbian eta Mexikon bere lanak erakutsi ondoren, Alvaro Mundiñano margolari etxarriarrak *Barne Barnetik* izenburua jarri dio Altsasun jarri duen erakusketari; "niretako barnetik ateratzen delako" pintura. Altsasuko kultur guneko erakusketa aretora sartzen denak tranpantojo edo begi-engainua opatuko du. Erakusketan dagoenaren aurkezpen modukoa da koadro hori, denetarik baitago nahastuta: paisaia, erretratua, natura hilak...

Mundiñanok azaldu digunez, koadroak margotzeko olioia erabiltzen du. Oinarri gisa egurra edo oihala erabiltzen ditu eta behin lana despedituta berniza ematen die, "bizitasuna lortzeko". Aitortu digu egurrean margotzea oihalean margotzea baino zailagoa dela, "baina egurrean margoaren dirdira hobe ikusten da". Tamaina ertain eta handiko koadroak dira ikusgai daudenak. "Txikiak ere badituzte, baina ez dituzte ekarri. Handiak hobe ikusten dira".

Iortia kultur gunean hainbat serietako margolanak jarri ditu Etxarri Aranazko pintoreak ikusgai. Leonardo da Vinci koadroen errepikaren serie bat dago lehenik. Hala ere, errenazimenduko koadro ezagun horiekin jolas moduko bat egin du etxarriarrak, pertsonaiek eskutan elementu berri bat baitute beti. Sorta hori guztia pintura beltz akrilikoaren gainean margotua dago. "Beltzak arriskua du, akats gehienak ikusten dira, baina koadro hauek beltzean, niretako, hobe ikusten dira". Amaren irudia tartekatu du sorta egin berrian. Migel Anjelek Kapera Sixtinoan margotutako bi irudien errepika ere ikusgai dago erakusketan. Erretratugintzan moldatzen dela esan digu etxarriarrak.



Iortia kultur gunean bisitariak Alvaro Mundiñanoren lana ikusten.

## ERRETRATUAK, PAISAIK, NATURA HILAK ETA BEGI-ENGAINUAK IKUSGAI DITU MUNDIÑANOK

### Sorta gehiago

Ardo botiletako kortxoak, frutak, liburuak... osagai dituzten natura hilak ere ikusgai jarri ditu Mundiñanok. "Klasiko-klasikoa bakarra dago. Kortxoan isla ispiluan oso ongi ikusten da, eta niretako polita da". Sorta horretako koadroetan herrien edo pertsonen izenak irakurtzeko aukera dago. Loreontzi sorta bat ere badago ikusgai eta haietan hainbat mitologietako irudiak ikus daitezke. "Txinatarrak, politak direlako. Greziarrek mitologia handia dute eta ongi ikusten delako". Liburuetatik ateratzen du sorta horretan margotzeko motiboak.

Etxean koadroak gordetzeko toki "dexente" ez duela eta begi-engainua diren koadroak horregatik egiten dituela esan digu pintore etxarriarrak. Horregatik, tranpantojoak edo begi engainuak

diren margolanak: "denak koadro batean eta kitto". Halako sorta batekin erakusketa jarriko du Iruñeko autobus geltoki zaharrean, apirila aldera. Nafarroako hiriburuko, Iruñeko iturrien sorta bat ere jarri du ikusgai Mundiñanok. Denak etxe artean daude, Takonerako parkeko Gaierren oroigarria izan ezik. Hona margolariaren azalpena: "iturri desberdina da, arbolak eta, egun hartan oso ongi ikusten ziren". Normalean ez du kalean zuzenean margotzen. Argazkiak egin, koadroan marrak egin eta horrela moldatzen da Mundiñano paisaiak egiterakoan.

Etxarri Aranazko ibai ondoko Materan borda eta uharka edota eliza eta harantz oinez doana ikusten diren koadroetan elurra ageri da. Beste zenbaitetan ere. Neguan gaudelako aukeratu ditu margolari etxarriarrak margolan horiek erakusketarako.

Sakanako hainbat puntutatik egindako Beriain mendiaren koadroek osatzen dute erakusketa, Arruazutik, Dorraotik, Lizarragabengoatik edo Burundatik. Beti ere argi tonalitateak aldatuz, neguko argi izpien isla haitzean jaso asmoz.

# "Memoria historikoan emakumeak falta dira"

Altsasu institutuko ikasleek aiton-amonei egindako elkarrizketak oinarri hartuta, Altsasuko Udalak memoria historikoko beka kaleratu zuen. Kitz Mendiola jaso zuen beka, eta gerra zibilean emakumearen papera, izaera eta giroa aztertuko ditu

I. Carreño - E. Ruiz ETXARRI - ALTSASU

## 1 Zergatik parte hartu zenuen? Horretan ibiltzen zara?

Lagun batek bidali zidan deialdia eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Aspaldi neukan buruan memoria historikoa nondik lantzen den, izan ere, ni feminista naizenez, askotan emakumeen testigantza eta genero ikuspegia ez zela txertatzen iruditzen zitzaidalako. Orduan, animatu nintzen.

## 2 Bekaren aurrekaria Altsasu institutuko proiektu bat da.

Proiektu oso interesgarria da: historia irakasgai, Ande Leon irakasleak bultzatuta, galdera batzuetan oinarrituta aiton-aminei elkarrizketak egitea. Duela bost urte inguru hasi ziren. Belaunaldiartekoa da, eta askotan bilobei kontatzen diete seme-alabei kontatzen ez dieten gauzak, eta ilobak aiton-aminei historiaz jabetzen dira.

## 3 Zer garaia jorratzen da?

Berez frankismo garaiko galderak dira. Baina, gerra zibileko galdera batzuk ere egiten dituzte. Aisialdia, nola sortzen ziren bikote harremanak, eliza,

politika, giroa, etxeko lanak nola banatzen ziren, zertan jolasten ziren... oso zabalak dira. 300 elkarrizketa inguru daude. Joan nintzenean izutu nintzen.

## 4 Hori dena transkribatuta dago.

Lan handia egin dute. Elkarrizketak transkribatuta daude eta lan bakoitzak CD bat dauka. Horren digitalizazioa erdi galdu omen da, eta horrek erraztuko zuen urteen arabera elkarrizketak topatzea. Asko daude, baina gai batean enfokatu beharra daukat. Nik gerra zibilean enfokatu dut, gerra zibileko testigantzak, orduan 1929an baino lehen jaiotako aiton-aminek eta pertsonak, osabaren baten bat ere dagoelako, bilatzen ditut.

## 5 Zein da zure proposamena? Aurkeztu duzuna?

Nik ez dut inoiz ikerketarik egin. Niretako dena zen berria. Proposatu dut genero ikuspegia ikertzea. Sakondu daiteke, gerra zibilean pila bat sakondu daitekeelako. Baina nire asmoa da orain hartu ditudan elkarrizketak horietan genero ikuspegitik zer dagoen aztertu. Nire asmoa da informazio hori elkarrizketa batzuekin osatzea, eta denbora

ematen badu artxiboetara jo nahi dut.

## 6 Artxiboak aipatzen dituzunean, Sakanako artxiboez ari zara?

Sakanakoak, bai. Begiratzen hasi naiz, eta genero ikuspegia oso zabala da. Egia da ikerketa txukun-txukun bat egiteko bost hilabetetan... ni ailegatzen naiz ailegatzen naizeneraino. Egongo zen ongi datozen urteetan beste beka bat sortu gehiago sakontzeko. Memoria historikoan genero ikuspegiaren inguruan Nafarroako Gobernuak ez du ezer egin.

## 7 Ilbeltzean hasi zinen?

Bai. Leitzen hasi naiz eta oso interesgarria da. Kokatzen ari naiz. Garbi neukan ikuspuntu hori nahi nuela: zer rolak zegozkien emakumei eta abar. Gaur egun ez bada iguala emakume edo gizon izan, pentsa gerra zibilean. Eta horrekin igual ez ditut hainbeste gauza arakatzen. Atzo leitu nuen testigantza bat, soldadu egondako Lakuntzako gizon batek kontatzen zuen haurrak zituzten emakumeek gosea zutela, eta ez zuen garbi esaten, baina antzematen da sexu harremanak eskaintzen



Kitz Mendiola.

zituztela jateko. Horretaz ez da asko hitz egiten.

## 8 Zein hizkuntzatan daude elkarrizketak?

Euskaraz asko daude. Gainera, oso polita da euskalkietan dardelako, Arbizuko euskara... Baztanen jaiotakoak eta Altsasura bizitzera etorritakoak daude, frankismo garaian Extremaduratik etorritako aiton-aminek... Ni ari naiz transkripzioak irakurtzen.

## 9 Ondorio batzuk atera beharko dituzu?

Bai, eskatu didate bi hilabeteetan zirriborro moduko bat aurkeztea, eta, gero, bost hilabeteetan ondorio orokorrak aurkeztu behar ditut. Lan hori udaletxean geldituko da. Irakasleak esan zidan poztan zela beka xume

honek bizitasuna eman diolako jasotako testigantzei.

## 10 Historia ikasten ari den jendearekin elkartzen ari zara?

Zerrenda bat daukat. Etxarri Aranatz bertan Xapa daukagu eta memoria historiko taldeetan dabil jendearekin elkartzea ere da nire asmoa. Baita testigantzak izan dezakeen jendearekin ere.

## 11 Izango dira jaso ez diren testigantzak ere.

Herrian testigantza baten berri badute eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzea. Arakilgo ezer ez dago, esaterako. Interesgarria da ikuspegia zabaltzea. Min asko eta zauri asko egon da, batzuk beldurra ere izan dute eta ez dute hitz egin nahi. Baina eskertuko nuke baten bat prest baldin badago.

## BAZKIDE SARITUAK OTSAILEKO SARIAK:

### 1. SARIA:

EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN  
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

### 2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN  
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA

erein  
argitalextea

GAZTEZULO

CAMPING  
ARTAZA

Ekain berri

kaip

lacturale